

# JAKIN

---

## GAURKO PENTSALARI BAT

Pentsalaria eta eragina. Gaurko pentsamendu berriak zer zor dion pentsalari honi, eta zer ez. — Dimensio bateko gizona. Gaurko zibilizazioak dakarren gizon berri honen salaketa interesgarria. — Eguzkialdeko aize hoiek... Edozein pentsamendu eta jokabideak ba dute beren esanaia. Esanai hori ezagutu beharrean gaude.

RIKARDO ARREGI. JOSE AZURMENDI. KARLOS SANTAMARIA.

### NOTA LABURRAK

Loreila. — Mikel Lasa edo Amerika deskubritu ez duan bat. — Gramatika eta euskal kultura. — Lurralde antolakizuna. — Konformagaitzen konformismoa.

### KRONIKAK

Txekoslovakian. Hizkuntzaren pizkundea ... .. IGARA  
Vietnamdarrak eta beren hizkuntza ... ..

### AGIRIAK

Kamilo-ren plataforma

### LIBURUAK

Jesukristo ... .. JOSEBA ARREGI

---

urtekoa: 100 peza

EPAILA-MAIATZA

alea: 25 p.

**35**

## LIBURUAK

### **EUROPA.—Jakinlariek.**

10 saiakera interesgarri Europear Alkartasunaren gain.

### **FILOSOFIAREN KONDAIRA I.—Jakinlariek.**

Filosofiaren Kondaira osoa euskeraz eman nahi luken bildumaren lehen zenbakia.

### **JAINKOA.—Kristau Fedearen Sustriak.—L. Villasante.**

Sinismenaren zergaitiak eta oinarrri beharrekook. Teodizearen argitan.

### **LAU EBANJELIOAK.—Mendizabal-Goitia.**

Goxoki ta herrikoi emanak. Goitia eskritulariaren ohar baliotsuekin.

### **EUSKAL-ADITZA.—Joseba Intxausti.**

Euskal Verboari buruz gaurdaino egin den azterketarik sakonena ta garbiena.

### **LAS 7 LECCIONES DE EUSKAL-ADITZA.—Joseba Intxausti.**

«Euskal-Aditza»-ren osagarri eta laburpen argigarria.

### **ELORRI.—Bitoriano Gandiaga.**

Olerkiak. 1964-ko «Jose Antonio Agirre Saria», azken lau urteetako euskal liburu onena bezela saritua, alegia.

### **EUSKERA.—Iñazio Omaetxebarria.**

Gure hizkuntzaren azterketa bat, euskera irakasteko egiña.

---

10 %-ko deskuentoarekin hartuko dituzte liburuok JAKIN'en arpedunak.

**ESKATU: Dirección de JAKIN - Arantzazu - Oñate (Guipúzcoa)**

## ARKIBIDEA

J. AZURMENDI: Pentsalaria eta eragina ... ..	3
K. SANTAMARIA: Dimensio bateko gizona ... ..	17
R. ARREGI: Eguzkialdeko aize hoiek ... ..	25

### NOTA LABURRAK

Loreila. — Mikel Lasa edo Amerika deskubritu ez duan bat. — Gramatika eta euskal kultura. — Lurralde antolatuzuna. — Konformagaitzen konformismoa.

Rikardo ARREGI. Jose Luis LIZUNDIA. Ramon SAIZARBITORIA.  
Joan Mari TORREALDAY. Piarres XARRITON

### KRONIKAK

IGARA: Hizkuntzaren pizkundeaz bi hitz ... ..	58
Vietnamdarrak eta beren hizkuntza ... ..	66

### AGIRIAK

Kolonbiar herriaren fronte baturako PLATAFORMA ... ..	68
---	----

### LIBURUAK

JOSEBA ARREGI: Jesukristo ... ..	73
----------------------------------	----

### OHARRAK

# JAKIN

ZUZENDARIA: JOAN MARI TORREALDAY  
ARANTZAZUKO FRANTZISKOTARRREN ARDURAPEAN ARGITARATUA

13 URTEA — 35 ZENBAKIA — ARANTZAZU. OÑATE — EPAILA-MAIATZA

---

*Izen zaratatsua. Historiaren perspektibarik ez dugu noski eta ba liteke horregatik, une aldakor bateko zarata izatea. Baina, une motz bateko baldin bada ere, zarata hori hor dago. Eta zerbaitegatik dago hor. Moda utsa? Aldakorra dela esanaz ez dago baztertzerik. Aldakortasun horren arriskua korriturik ere, JAKIN-ek izen hori bere horrietan hartu du, ezin baiditzazke momentoko zaratak eta iskanbilak aparte utzi.*

*Gaurko erreboltaren buruzagi teorikoa dirudianaren lana bistatu gabe ezin utzi zezakean JAKIN-ek. Gure baitan bilduak ez gaudenez, gure etxean itxita ez gaudenez, ezin leioa itxi. Hortara dator zerbaki hau. Segurki zerbaki zaila izango dela. Izan ere asko baldin badira pentsalari hontaz mintzatzen direnak, honen obrak irakurri eta aztertu dituztenak askotaz ere gutxiago direla dirudi. Cohn-Bendit-ek honen pentsamendua ez duela ezagutu ere egiten aldarrikatzen du.*

*Eta ez da, zenbaitek usten duten bezala, pentsalari ximple eta erraz bat. Trinkoa ta sendoa baizik. Ulertzeko filosofia errotik ezagutu behar da. Baina nahiz eta bere iritziekin ados ez izan, gaurko egoeraz zerbait jakin nabi duenak ez dakigu nola baztertu dezakean.*

Hiru lan argitaratzen dira. Batek pentsalari hau ezker berriaren testu-inguruan jarriko du. Jakina danez, ezker berri hau mugatzea ez da lan erraza. Gutxiago oraindik mugatzea, bere seinalerik nau-siena, beharbada, mugikortasuna baida. Ezker berri honentzat, hasiera batean buruzagi ia bakarra bazen M., gerora gauzak asko aldatu dira noski. Hala ere lan honek ezker berriari M.-ri buruz dabil-tzan eztabaida batzuen berri eman lezake.

Beste lan bat pentsalari honen pentsamendua aztertzen saiatu-ko da. Beti bezala, honelako lanetan bestela ezin izan ditekenez, hurbilketa bat besterik ez da izango. Baina, hurbilketa pertsonala da, beharbada, pentsalari baten obrara gertutzeko modurik ego-kiena.

Azkenik, hirugarren lan batek pentsalari hontaz apenas ezer esango duen. Haren izena aitzaki bat besterik ez da izango, honek bere liburu batean planteatzen duena agertzeko. Hirugarren lan ho-nek atari bat besterik ez du izan nahi. Horregatik, harek bere liburu batean dionaren laburpen bat besterik ez dela esan ditek-e.

Egun munduan, eta hemen ere bai, dabil-tzan ideia batzuen be-rrri eman eta hoietaz zerbait pentsatuta lan hauek bide-idikitze bat suposatzen baldin badute, pozik gera. Zerbait ba dela uste dugu.

J A K I N

## *Pentsalaria eta eragina*

JOSE AZURMENDIK

Ezker berrien urtea izan dugu 1968: Amerika-n, Berlin-en, Paris-en, Txekoslovakia-n. Gertakariok inguru guztiz arruntetara bil baditezke, esango nuke, gaurkotasunaren lege bilakatu dala errebixionismoa (errebixioa behintzat). Azter dezagun, axal xamarretik bederik, errebixionismo honen baitan M.-ri dagokion lekua.

Harritu nau pittin bat JAKIN-en M.-ri buruzko zenbaki bat paratzeko asmoak. Hemen, Alemania-n, gogortzen doa filosofo honen aurkako kritika, eta ikasleen eta M.-ren arteko etendura bat gertatzen ari dala ere esan diteke agian. Paris-eko erreboltaren ondorenean hasi zan hau («nahasketa sinpatikoak, baina ez erreboluziorik» zirala esan zuen M.-k), eta Frankfurt-eko biltzarrean, M.-ren 70 urtebetetzekoan borobildu zan. Omenaldiko zazpi hitzaldiak, zazpirak, filosofoaren kritikan lehiatu ziran. Hori, nolana ere, M.-ren logika jatorrenean ezar diteke. Baina ikasle zozialisten (SDS) Frankfurt-eko azkeneko bileran gogorragotu egin da oraindik kritika hori.

1. Zozialismoan *klasetasunaren* konzeptua oinarrizko dan ezker, hementxe nabari dira ezker berrien eta klasikuen arteko ezberdintasunik nabarmenenak. Langile-klasearen beharkizun edo premiak berariz eta automatiko (egituren egoera objetiboagatik, esan ohi zan) egoeraren ukazio dirala zion tesia teoriatzko deribazio bilois gorri-gorrian agertu da. Abstrahizkuntza bat zan, agian teoriatzki zuzena, baina eguneroko errealdadeari kontraesaten ziona. Konzeptu

operazional bezala kamuts iruditu zaie ezker berrieri, gaurko egoera aztertzeko ta adierazteko. Dialektikaren termino elkar-ukatzailerek izendapen berria aurkitu dute gaur, beraz, errealidade berria ere. Agintariak eta aginduek (Dahrendorf, Alemania-n), teknokrata edo plangileak eta plan-betetzailak (Markhanen, Finlandia-n), omen dira gaurko klaseak. Bogdanow-en iritzi zaharrak berpiztu egin dira! Zabalero handiago batean aztertuz, integratuak eta integratu-gabeak dirala ere esaten da, zuzenki industriaren giroa baino gehiago gizartearen egoerarena nehurtuz.

Planteamolde orokorrigo hontan sartzen da M. Honen iritzi, dagoneko gairidurik dagoen egoera ekonomiazko bati zegokion Marx-en planteamoldea. Gorz (Frantzia-n) eta Bottomore (Inglatera-n) ere, klasetasunaren konzeptu heterodoxekin operatzen ikusten ditugu, beren azterketetan. Baina ez dago konzientzia onean, guzti hoek iritzi batera biltzerik, nahiz-eta guztiek bat egingo duten, klasetasunaren konzeptu zaharra arbuiaztekoan.

Funtsean, *alienazioaren* konzeptu berriak sortarazi zuen klasetasunaren konzeptua ere berri beharra. Hontarako, berri, filosofia-ko ta antropologiako (zer esanik ez, sikologiako) joera berri eta aurkikunde orobat berriek zabaldu zuten bidea. Burutapen ezberdinak agiri dira ezker berriaren teorikoen artean, alienazioaren iturburueri nahiz zer-izanari buruz. Zenbaitentzat, esaterako, gizonak ez du lehenago ba omen zuenik ezer galdu (alienazioarekin), funtsean behintzat, ezpada, gizonak ez du bere osotasuna oraindik eskuratu eboluzio-bidean. Hala Fischer-ek, Austria-n. M.-k Freud-eri jarraitu dio, hontan ere. Hortakoz, alienazioaren mamia ez da gaur lan-indarraren galtzea, ezpada Eros-en errepresioak jadanik arrazoirik ez izatea eta, bigarren, errepresio horri eskerrak iritxitako produzio-xistimak gizonaren bizitza (hitz honen zentzun beteanean) osatu ez baino mistifikatu egitea.

Elkarrekin lotuta dauden faktore bion (alegia, alienazioaren eta klasetasunaren) ikusmoldea aldatzeari jarraitu diola ezker berriak, esan diteke. Instituzioen ukazioa, ots, erreboluzioaren indarra, nun dagoen ez dago teoriiazki ateratzerik, eta betiko tinkatzerik: egoera

bakoitzean aurkitu eta konkret aztertu beharra dago hori (Claus Offe).

Ezker berriok aurrerago kritikatzeko dutenez, teoriako klase-konzeptu honi Demokrazia Herritarretan eman dioten askabidea ez da desalienaziorik, teoriarik ez bada. Autoritarismo batetik bestera iragan besterik egin ez duten ezker, giza-banakoa ez da bere burua jabe bilakatu.

2. Beti ere, Marx da ezkertasunerako bide-erakuslea. Baina Marx-en mailan gelditzea ortodoxian eta esku-liburuetan gelditzetzat eman da gaur ezker berrian.

Mogimendu honen hasiera, gutxi-gora-beheraka emanik, 1960 inguruan ezar ditek. Ungaria-ko errebolaren arrakastak bizkortu zuen errebi-xioa, ezpairik gabe. Baina orduan Alderdi Komunistetatik, edo haien inguruetatik alde egin zuten ezkertiar kritikalariek ez dute berriki artetan oihartzunik aurkitu. Antikomunismoaren zarrak ito ditu. Eta beharbada, antikomunismoak lainotu ere zuen haietako zenbaiten iritzia.

Errebixionismo akademikoaren aro bezala izenda ditek lehenengo hau: esistenzialismoak Frantzia-n; Husserl-en fenomenologiak Praga-n eta Zagreb-en; hizkuntza-jakintzak (Schaff) eta esistenzialismoak (Kolakowski) Polonia-n; Hegel-en eta «Marx gaztearen» aurkitze berriak, hau da, humanismoaren arazoak Italia-n; Freud-en azterketek E. Fromm eta M.-ren teorian, suspertu dute errebi-xioa intelektualen artean. Marxista apokrifoak gehiegi ugaritu dira, bazter guztietan, hemen zenbatu ahal izateko.

Marxismo berriak, ba, ikus ditekenez, guztiz itxura ezberdineko pentsakerak bildu ditu. M. beste askoren arteko bat da.

3. Ugaritasun horregatixe, askok pluralean esaten dute: ezker *berriak*. Eta egoki dirudi holaxe esatea, bai teoriaren eta bai ekintzaren aldetik.

Xistimik hil dira. Ez Praga-n, pantzerren azpian: ordurako hilda zeuden. Paris-en, Berlin-en eta London-en aurtengo udan hupatu ziran ikurrin beltzek xistimen heriotzaren hileta-beltza agiri zuten.



Beraz, M. ere ez dago xistima gisan hartzerik. Ezker berriaren xistima (!) M.-rena ez dalako, bahitipat, eta bigarren, M.-k berak xistimarik ez daukalako. Xistimazko batasunik, inun izatekotan, *One-Dimensional Man* liburuan bilatu digu egileak. Baina liburu honetxan hitzaurrean bertan oharrerazi digu autoreak, gizartearen muina ez baino gizarte hortako *joerak* aztertu nahi dituela, eta horien azalpiderako *hipotesiren* batzuk eskeini.

Gizonaren xistima-zaletasuna ez da, gorputz bat eta nortasun bat geran bezalaxe, pentsakeran ere bat izateko irrikia besterik. Holaxe nahi izaten da kondairaren ibilkera ere batasun bezala ulertu ta adierazi. «Orain arte izan diran gizarte guztien kondaira, klase-burrukaren kondaira da», idazten zuen Marx-ek. Hori, jakintzak gezurtaratu duela alde batera utzita ere, ez da monismo hegeldar zintzoena besterik. Zer dakigu kondaira *guztiaz* eta gizarte *guztiaz*, apriorismoek erakusten digutena baino! Ehun urte ta gehiago da Marx-ek hori idatzi zuela, darwinismoaren, soziologiaren, sikologiaren hasieretan idatzi ere... Gaur gutxi dira, hain orokorki ezer baieztatzen ausartuko lirakeanak: kondaira ez da xistimarik.

Gainera, ba dago hemen zer galdeturik franko: zutik egoteko bizkar-ezur sano bat behar da, baina zutik dagoen gizona ez da bizkar-ezur sano bat. Xinplekeria eta irudi txar horek hau adierazi nahi luke: ekonomiazko faktorea, abstrakt begiraturik, kondaira guztia-  
ren bizkar-ezuraren antzeko zerbaitzat aitortzeko ere (negatiboki batez ere: gizarteak ez du behin ere bere buruaren hondamendia bilatu — gizartea ez da gosez eta alferrez hiltzekotan etzan), orokortasun honen koefiziente konkretoak guztiz ezberdinak izan dira, eta hoek eman diote kondairari nortasuna ta aberastasuna. Kondairaren goraberetan garrantzitsua da jabegoa (abstrakt) asmatu zan eguna, baina Helena-ren jabegoak Troia galdu zuen eta antzarren jabegoak Erroma salbatu. Mitoak, bai... baina errealidadearen kontraispilu egokia. Gudu batean, esaterako, faktoreek ezartzen dute nortasuna, nolabait esateko. Abertzaleak eta inperialistak, Fernando Katolikoak eta Cromwell puritanoak eta Almanzor-ek, funtsean klase-burrukan ziardutela ezin-ukatua balitz ere, ezin-

-ukatuago da koefiziente ezberdinekin egin dutela kondaira. Eta aipa artea, filosofia, erlijioa, sexoa, geografia etabar, guzti horiek ez baitira nolanahi deskontatzeko faktoreak.

Reduzio handi batekin esanda, guzti hori (konkrezioa) ahaztu delako, zokoratu-edo da klasetasunaren konzeptua: konzeptu operazional bezala ezin-erabilizko ta ezgauza, alegia, abstrahizkuntza lazoegi ta orokorregi, iruditu zaielako ezker berrieri. Molde zaharrean ulertzekotan behintzat. Edozein denpora, leku edo egoeratako prolema propioa ez da derrigor ekonomiazkoa.

Havemann-ek, ezker berriaren intelektualetakoa bera (Alemania Demokratikoan) esan duen bezala, gizadiak beti jakin ditu bi gauza: berak egin gabeko gertakari asko jazo dirala kondairan (antzarrak), eta berak libreki egindako gauza asko, egin zitezkean baino askoz gaizkiago gertatu dirala (Helena). Beraz, dialektikoki dabil kondaira, baina dialektika ez dabil xistimazki.

Honekin ba ditugu ezker berriek aldatu dituzten beste konzeptu bi: *dialektika* eta *kondaira*.

Ezker berri ta klasikuen teoriari buruzko ezberdintasunak ikusi ondoren, begira ditzagun orain bion jokabideak laburki.

4. Errebixionismoa ez da oraindik politikan trebatu. Indartu ahal izan baino lehen ito nahi izan dute: bai Paris-en eta bai Praga-n (jakina, ez ditugu beste gabe Paris eta Praga berdinduko!).

Ezker berriaren oinarri ta basj instituzionala Ikastetxeetan egon da. Intelektualen (verbi gratia, ikasleen) tarteetan finkatu da. Nortasun indibidualen batzuek suspertzen zuten, gehienetan; Praga-n, ikasbide bikaina hauxe, Idazleen Elkarte osoak eusten zion. Bai lehen-aldi akademikoan eta bai geroko ekintzaldietan ere, kritizismoa izan da ezker berriaren ezaugarriarik nabarmenena. Konzientziak iratzartzera jo du bere ekintza guztiak.

Hainbat eta miresgarriago, horregatixe, ezker berrion aurka «zozialismo-sekta» tradizionalak (komunistek, trozkistek, zozial-demokratek) kontrajarri duten guztia erakundeak, Alderdia ta ordenua izatea. Ezker berriok ez ziran larregi larritu, Waldeck Rochet-ek

hain zuzen Marx-ek burgesiaren marrukeria bezala kondenatzen zuen esaera bat hitzez-hitz bere egin zuenean (mingain gaiztoek diotenez, Waldeck Rochet-ek Marx irakurri ez omen duelako!): komunistak ordenuko Alderdi bat gera... Eta adierazirik dago horrekin ezker berri ta klasikuen arteko ezberdintasunik funtsezkoa: ezker klasikuek xistimaren «joku-arauak» errespetatzen dituzte; ezker berrien ekintza, berriz, irudimen asko bezain xistima gutxikoa izan da.

Ezkerrok, ba, elkarren ekintza ukatzen dute. Klasikuek: ezker berria ez da zalapartero ta anarkisten jolas gaiztoa baizik. Ezker berriak klasikuari leporatzen diona, dialektikaren atrofia ta kietismoa izango da. Ezker berriari iritziz, zozialismo klasikua ahulegi ta lotuegi dago, egoera berriari kritika radikalik egin ahal izateko. *Establishmentari* integratuta. Eskema zaharretan estekatuta gelditu da. Eta bigarren, kritikarako ezintasun horregatixe, ez da erreboluziorik egiteko gauza. Bera gauza ez dalarik, berriz, prestuago diranerri (ezker berriari) enbarazo egiten bestetan ez da saiatu. Eta, azkenik, eskema klasikuen erreboluzioa, baldin batean egingo balitz ere, aurrerapen barik, *atzerapen eta galera* baino ez litzake izango. Nazio industriatsuetan behintzat.

Nazio industriatsuak aro *post-marxistan* aurrera-samartuta dabilta. Gauza bera otseginaz zabaldu dira URSS-etik bertatik ere kezka batzuk, Sacharov jakintsuaren idazki bat bereziki.

Gorago oharrerazi dudana bera aipatu behar da hemen ere: alegia, klasikuen kritika hau ikusalde ezberdinetatik sortu dala. Txekoslovakia-n, esaterako, Alderdi Komunistaren baitatik erne baita gehienbat ezker berria, desestalinizazioaren bidea sakondu dute (nire iritziz desleninizazio batekin jarraituz). Italia-n ere, hango Alderdiaren egoeratik eta Italia-ren kondaira nahiz gaurragatik, ezker berriak gogorkien narrutzen dutena sobietar egituren monolitismoa ta autoritarismoa izango da. Baina E. Fischer eta Bloch, esaterako, trazendentziaren eta personalismoaren arazoaz arduratuago dabiltzalarik, joera zearo ezberdineko kritikan lehiatu dira. M.-ren kritikari dagokiona, zenbaki hontako beste artikulua batean aztertuko da. Beraz, hemen ere M. ez da bakarra.

5. Ekintzari buruz, konkret, oso ezberdinki jardun da ezker berria. Berlin eta Paris ez dago berdintzerik, are gutxiago Paris eta Amerika-ko ezker berria, eta hoetako inor ere ez Praga-rekin. Mendebaldeko ezker berriaz ezin esan leike ekintza propioa duenik ere. Amerika-n *Black Power*-ekin bategin du; Erroma-n maoistekin eta trozkistekin ederki konpondu zan; USA-ko trozkistak (Isaac Deutscher, adibidez) ezker berriaren arerio amorratuenetakoak agertu dira; eta Alemania-n nahiz Frantzia-n, berekisa jardun behar izan du, gehienbat, nori lotu falta zalako. Ots, beste oposizio radikalik ez zegoelako. Berlin-en bertan ere ez zan posible izan hango Alderdi Komunistarekin (Berlin-go lurralde federalean ez zegoen debekaturik, Alemania Federal gutzirako baimena eman aurretik ere) batasun benetakorik. Orduan zebiltzan Alemania Federalean Alderdi Komunista legezkozteko urratsak ematen, eta Berlin-go lagunek ez zuten baimen hau arriskatu nahi izan... Frantzia-n, ezker berriko zenbaiten iritzian behintzat, Waldeck Rochet-ek salbatu omen zuen De Gaulle! ?

Ezker berria bere multibersidadean batu duena, ta ukazioaren xistima bihurtzetik oraingoz libratu duena, *itun* edo aliantzen estrategia izan da. Beltzen, Vietnam-go, prentsaren eta abarren prolemek zabaldu diote Unibersidadetik kalerako bidea. Ezker berria oposizio radikalenari lotzen zaio beti, haren helburuak bere-gain hartzen ditu, eta oposizio honen barnean abangoardia bihurtzen saiatzen da.

Hortik oportunismo akusazioa. Mogikortasun hortatixe CIA-ren infiltrazio ugaria ere. 50.000 dolar urteko ixurtzen omen zituen honek ezkertiar gazteen infiltrazio-zirrikituetatik. Jan Haekkerup, jaiotzaz dinamarkar Ministro-semea ta International Union of Socialist Youth-eko sekretario orokorra, CIA-rekin harremanetan omen zegoen, eskandalo batek baztarreratu zuen arte. Ezker-talde zenbaitek (Alemania-n SDS-ek) zaputuz egin behar izan dio erakunde honi.

Agiri-agirian dago pluralismoa.

6. Eta pluralismoa da ezker berriaren beste ezaugarri bat. Ezker berria pluralista aitortu da, bai ideologian, bai ekintza-moldeetan eta baita interes-joera nahiz interes-taldeetan ere.

Ez du batasunik edo Alderdirik bihurtu nahi izan, mogimendu pluralista izaten jarraitu baino. Ekintzak, irizpide klasikuen arabera, besterik aholkatzen zuen unerik kritikoenetan ere, Paris-en agertu zanez: amerikarrak *multibersidadea* deritzatenaren zentzunari tinko eutsi dio. Langilerismo edo interes-monopolio barik, ideiena bezain sakratu aitortu da interesen pluralismoa.

Hain zuzen horixe dala-ta ere ezin entzun dio ezker berriak profeta bati bakarrik (M.-ri bereziki entzun arren). Ezker berriaren ideologia ez da filosofilari edo soziologilariren baten burutik, armaturik eta pronto, sortu, Pallas Atenea Jupiter-en burutik bezala. Ideologia libre bat danik ere ezin esan leike. Ezpada, «ideologiatik dago libre» (free from ideology, including socialist ideology — definitu du M.-k. ).

Beraz, ezker berria *collage* ezberdinekin osatuta bezala agiri da.

Eta, zer-nolako erreboluzioa nahi ote dute ezker berriok, edo zein helburu ote dute? — galdetuko zuen norbaitek honezkero. Bai, inork baleki horixe! ... *Gizarte berri bat*, nahi da. Baina hau zehazki definitzea ez da posible.

7. Erreboluzioak gizartea *kalitatez* aldatu nahi izatekotan, plan-teamolde eskasa iruditzen zaio ezker berriari zapalketa edo errepresioa termino fisikazko-ekonomiazkoetan jartzea. Kantidadezko erreboluzio soilean gelditu izana leporatzen dio M.-k Marx-i: alegia, lan-tresneriaren jabego herritarrean. Neokapitalismoaren hegemoniak gizarte osoaren barnean sartu duen zapalketa-moldea azaldu zan beltzen zapalketaren azterketakoan: intelektualki, moralki, sexualki, kulturalki gaude zapalduta.

Gizartearen kalitatezko aldakuntza da, orduan, beharrezkoa. Gizartearen kritikaok M. ezker berriaren antzokian agertu baino lehena-gokoak dira. Mao ta Rosa Luxemburg, azkenekoa batez ere, irakurtzen ziran hastapenetan. 1967-an azaldu zan gure filosofoa Eu-

ropa-ko ezker berrian, USA-ko SDS-en bitartez (urte hontako udan ikastaro bat eman zuen M.-k Berlin-go Unibersidadean). Baina Amerika-n bertan ere M. baino lehenagotik sartu ziran ezker berriaren intelektualen artean Paul Goodman eta C. Wright Mills-en iritziak. Mills-ena da amerikar gizarteko indar-nukleoen azterketaren irabazia. Bera da ezker berrian intelektualen indar erreboluziogileen tesia finkatu duena ere. Eta «Victorian Marxism» dalakoaren ezespena, M.-gandik baino lehenagotik datorkio ezker berriari: Mills-gandik hori ere. Sexo-kontuetan orobat, Norman O. Brown-en eragina M.-rena baino lehenagokoa da ezker berrian.

Erreboluzioak, guzti hoen iritziz, helburuen eta baliogoen iraultze radikala ta trasbaliogoa (radical transvaluation of values) eskatzen du. Baliogoen erreboluzio honek dituen formula askoren artean M.-rena izango da agian zabalduena, ezpairik gabe, haren utopiazko formulazioagatik, eta osoena dalako ere bai, beharbada.

Beraz, erreboluzioaren bidea orain artekoaren eta oraingoaren (baliogoen, egituren, helburuen eta, hitz batean, gizartearen) erabateko ukazioarena da. Orain arteko kondizionamendu historiko-zozial osoari ezezkoa eman behar zaionean, eta erabateko ezezkoa, M.-k nahi duen bezala (baina hemen ezberdintasun aunitz agiri da autoreen artean), «indar arkaiko» guztieri (alegia erlijioari, moralari, gizarte-erakundeeri, sexual-errepresioari, Estaduari eta edozein arau aurrez-emani) bota behar zaio ezezkoa ta ukazioa. Orain arteko kondaira guztia *tabula rasa* egin, eta orobat kondaira horrek (edo kondaira hortan Eros-en errepresioak sortutako baliogo-xistimak) bizkarreratu digun moraltasun guztia (arabideren zentzunik zabalean) ezabatu: hori izango da kalitatezko aldakuntza. Nietzsche-k bezalaxe (ez bezalakoxe), moral berriko, baliogo ta arabide berriko gizartea predikatzen du M.-k ere.

Hau ez da utopiarik gaur-egun, esango digu M.-k. Hain zuzen utopiaren azkenak jo ditu amabiak eta kalitatezko erreboluzioaren zori edo momentu juxtuan gaudela deritza autore honek.

Bizitzeko burruka, alegia, eboluzioaren eta aurrerapenaren legea *bizi-bideen* burruka zan artean, hau da, produzioa bizi ahal izate-

koak sortzen zebilen artean, edo bestela esanik, gizonaren burruka *produzio-bideak berak* eskuratzekotan zebilenean, orduan bai, beharrezkoa zan Eros-en errepresioa, kulturarik lortuko bazan, ots, lan-biderik izango bazan. Hortik inestuaren debekua, amaren ohera igotzeko grina erreprimitua edo Edipo-ren korapiloa, gainditurik, agresioaren printzipio bezala: alegia, heriotzaren printzipioak bakarrik ekar zezakean, Eros-en errepresio-bidez eta agresioa naturalezaren aurka zuzendurik, lana. Eta lanarekin kultura. Errepresio honek bakarrik atera zezakean gizona aberetasunetik.

Baina burrukaren aro hori, bizi-bideen burrukarena, bapo gainditurik dago gaur, jakintzari eta teknikari eskerrak. Geure eskumenean agiri da, ba, errepresiorik gabeko kultura bat, kalitatez (ez kantidadez bakarrik) arras berria, abiatzea. Naturaleza menderatu dugun ezker, ez dago jadanik arrazoirik, barneari errepresiopean eusteko.

Eros-en atsegina ta kultur-askatasuna elkartzen dituen gizartea izango litzake berri hau. Eta M.-ren esanean, *utopia konkretu ta zientziatzeko* bezala agiri omen zaigu honezkero.

*Lehenengo aldiz kondairan*, uste du M.-k, errepresio guztiak, arauen nahiz aginpide personal guztien mendekotasuna deuseztatzeko zoria eskuratu du gizadiak. Gizonaren borondatearen gainetik ez dago ezer.

8. Ezker berriaren goraberetan zerikusi asko ekarri du teoria honek. Eta teoria hau faltseatzeak, alegia *pansexualismo* bihurtzeak. M.-k berak salatu duenez. Ezker berrien erreboltetan, Unibersidadeetakoetan bereziki, ez ziran arma urrienak anti-baby pastillak, eta desarrazoi handirik gabe gaitziritzi ahal izan dira erreboltaon zenbait asmo ta helburu, «erreboluzio pornografikoaren» izengaiztoarekin.

M.-k berak azalduko digu inork baino hobeto, ezkertiaratasun berriak nolako izan behar duen, bere teoriaren arabera «*junctione between the erotic and political dimension*», izan behar du ezker berriaren jokabideak (Eros and Civilization, *Political Preface*, 1966). «Total revolt» hau, alegia, oinarrien beren kalidadezko al-

dakuntza sortu behar duen erreboluzio hau, «it is sexual, moral, intellectual and political rebellion all in one. In this sense it is total, directed against the system as a whole» (The Question of Revolution).

Jakina, guzti honek zentzun arras bestelako bat irabazten du M.-ren textuinguru propioan. Errepresioak benetan gaintitu dituzten gizonak ez dira pansexualismoan amilduko, dio berak. Baizik-eta sexual goraberak huskeriak bihurtuko dira, interes gabeak.

Gure aberetasunaren mailari baitzegokion, beste inun ezinda, plazerra sexoan bilatzea, ta sexoan konzentratzea. Baina gizona abere gorenekoak baino gorago dago, eta lanari eta kulturari eskerrak, izpiritu librearen jabe bilaka diteke, kalitatezko erreboluzioaren bidez.

Eros-en askatasunak artista bihurtuko gaitu, lanerako arduratsu, geure nortasuna gaintitzeko lehiatsu etabar. Eros-en atsegin edo plazerra, izpirituarena izango da.

Erreboluzioa ez bailitzake atzera hasierako egoerara itzultzea, ezpada *orduan* zapalduriko sen edo istintoak *oraingo* egoeran eta eboluzioaren mailan jaregitea. Errepresioak egin duena Eros-ek egin dezake gaur. Dio M.-k...

Marxismoa Freud-en irakaspenekin osatu beharra aitorturik ere, gutxienez eztabaidagarri agiri da, osapen hori M.-k egin duen eran egitea zilegi ote dan. Sikoanalisizko azterketa zozialek argitasun ederrik asko lortu digute, gizarte arazoaren adierazpen kritikoa bereziki. Baina helburuak seinalatzeokan?

Ikasleek ez dutela zuzen ulertu «erabateko ukazioaren» tesia, salatu du M.-k. Baina ikasleek, beren aldetik, ez dute M. jipoi on bat gabe utzi. Ikasleok diotenez, hemen 1) ez da agiri benetako erreboluzioaren teoriarik, ezpada erreboluzioaren disoluzioa; 2) M.-k «bigarren mundu» batean ames-egiten du, ez mundu *honen* erreboluzioarekin; 3) «Beste istinto edo sen-egitura luketen gizonak, eta bestelako premia edo beharkizun-egiturako gizadia» *mistika* beste-rik ez da, — alegiazko gizadi horrek beste naturaleza bat beharko luke; 4) «zozialismoaren basi biologiazko bat», ekonomiazkoaren



lekuan, zentzugarabekeria soila besterik ez da, eta horrekin batera proposatzen dan konzientzia-aldakuntza radikal hori ez da faktore idealista bat besterik.

M.-ri egiten zaion beste kritika batek pixu handia dauka, nire ustez: antropologia funtsean indibidualista batekin operatzen duela. Baina kritika hau, —kondairaren paradoxak! — eskubitik bota zaio M.-ri, ta ez ezkertiarren aldetik).

9. M.-ren «utopia profanoaren» kritika zorrotzen eta gogortzen doa Alemania-ko ezker berriaren baitan. Jürgen Habermas, Frankfurt-eko soziologilariak liburu bat argitaratu du joan dan udan, zenbait soziologilari ezkertiarren saiakera kritikoeekin: M.-ri erantzuna. Ezker berriaren egun handiek, joan dan udan, M.-ren apoteosi bat izan ziran orobat. Orain, Alemania-n behintzat, antz onik agiri ez duen kinka txarrean sartu da ezker berria. Eta honekin batera, M.-ren izarra ere lainoak hartu du.

Zapalketa, beraz, alienazioa, termino fisikazko-ekonomikazkoekin baino sakonago adierazi nahiak zilegi dirudi. Agian ez hain zilegi, hori M.-k egin duen bezala egitea. Nire ustez, behintzat.

Eta orain? Ikasleok ez dute alferrik bildu joan dan udako eskarmentua. Alemania-ko ikasle asko ta asko Praga-n zeuden, ustegabeen eta gaez pantzerrak sartu ziranean. Europa-ko aideak beste giro ta kolore bat hartu du.

Joera kontrarioak beti izan dira ezker berriaren baitan. Eta hau udazkenean nabarmenagotu egin da. Alemania-n ortodoxoenak Alderdi Komunistan sartu dira, oso gutxi (orain arte debekaturik zegoen Alderdi hau, eta orain baimena eskuratu du). Ezker berri deritzanean gelditu diranak ere bi joeratan banatu dira: «adimenaren oposizioa» jarraitu nahi dutenak batetik, eta bestetik, itunak hertsitu ta eratu edo ekintza propio bat abiatu nahi lituzketenak.

Orain arte bezala, Amerika-ko SDS-ek jarraitzen badu arau ta ikasbide ematen, ba dirudi azkeneko joera nagusituko dala azkenean. Mogimentua mugatuko dan arriskua dakar honek, ezen kritizismoa

ez baita oraindik herrian nahikoa sustraitu. Ezker berriaren kalte-rako izango dala iruditzen zait. Bide berria «hirugarren herriak» ekarriko duela egia bada, liberalismo korporatibistaren aurka ta marxismo «triumfalistaren» aurka ere, aurrera jarraitu behar da kritizismoarekin.

Banaketa hau sortu duena zera da: ez da itunik agiri etorkizunean. Berez, abstrakt, ez dago prolemarik. Konzientziartzea edo konzientzia zabaltzea ta itun berezizko elkartasunak jarraitzea ederki batera ditezke. Baina zeinekin elkartu?

Ezker berrian ez du inork onartzen inolako Alderdiaren baten dirijismorik. *Ukazio zehatza* (determinate Negation) egiterik ez dagoen artean *zehaztugabea* jarraitu behar da. Herriak berak bere burua helburu baten bila erabakitzeke argitasunik, edo kemenik, ez duen artean, multibersidadean ekin behar. Ekintzak basirik ez duelako, eta nire ustean, basirik ezak derrigor bihurtzen duelako politika *establishment*.

(Ezker berriak, bere basi kaxkarrarekin Europa guztia dardarazi badu, zer egingo ote lukete, esaterako, Italiako komunistek, Alderdiaren basi guztia benetan erreboluziogile balitz? Baina Sisifo-ren harriak izen asko dauzka kondairan...)

Ho Txi-min edo Che Guevara ukazio zehatza dira (on hala txar, ez digu hemen ardura). Mogimendu abertzaleak ukazio zehatza dira, edo izan ditezke, egiturak porrokaturik, gizarte-molde berri bat abiatu nahi dutenean behintzat. Horiekin lotu ta horien barnean ukazio zehaztugabea edo abangoardia bihurtzea (beraz, autokritika etengabea), zan orain arte ezker berrion jokabidea. Amerika-n ez dago prolemarik: Black Power eta Vietnam, ez da ukazio zehatzik falta! Baina Europa nagi aspertu hontan, Txekoslovakia-ko hondamendiaren ostean batez ere, porzellanarik apurtu gabe egin nahi da erreboluzioa.

Alde batetik, ezinbestezkoa agiri da kritizismoan jarraitzea. Baina bestetik, zozialismo berriaren errealismo propio bat abiatzea proposatzen duteneri ez zaie arrazoirik falta: beharrezkoa dirudi urrats horrek, ezker berriak atzera Unibersidadera itzuliko ez badira.

Bide-gurutze hontan dago ezker berria, lerrook idazten ditudanean. (1) Isfinjea ezagutu ezinak ez ote duen galduko... Baina horregatik ez zaio M.-ri zaputz egin: hamar hipotesi ukaturik, beste hogeitaz aitortzen eta onartzen zaizkio. Hain zuzen, xistimarik ez dalako.

---

(1) Gogoan izan beza irakurleak idazlan hau 1968-ko udazkenean egin dela.

## *Dimensio bateko gizona*

KARLOS SANTAMARIAK

M.-ren gizartea, alegia, dimensio bateko gizartea, utopiatzat hartu behar dugu, asieratik bertatik, horrelako gizarterik ez baida oraingoz esistitzen, ez sortaldean, ez mendebalean.

Hau esatean ez diogu M.-ren eskemari batere inportantzirik kendu nahi. Are gehiago, filosofo honen analisa, gaurko egoera azaltzeko egokia baino egokiagoa iruditzen zaigu. Hauxe erakusten saiatuko gera idazki hontan bertan.

Stalinismoaren aroan eskema simple bat erabiltzen zan, sartaldeko aldetik behintzat. Antikomunismoa zan politika bakarra, eta antikomunismo horren izenean, benedizio guziak ematen zitzaizkien bidegabekeririk handieneri. (1)

Gero, guziek dakitenez, makartismoa bukatu-ta «koesistenzia» zalakoaren aroa asi zan. Munduaren eskema pixka bat korapilatu zan orduan, alde batetik irugarren munduaren prolemak agertu baiziran, herri hauen gosea ta miseria, guzien aurrean azaldurik; eta, bestaldetik, herri nagusien teknikak progreso izugarriak egin zituztelako, nahiz mendebalean, nahiz sortaldean. «Sociedad opulenta» dalakoaz mintzatzen asi zan garai hortan, eta batzuk pobreen askatasuna eta zorientasuna, teknikak ekarriko zituela sinetsi zuten orduan.

Baina arazo berriak sortu ziran batean eta teknika-gizartea honen ederra ez zala berehala ikusi zan.

---

(1) Orain ere, kristau aso asmo simple hortan bertan daude setaturik

Han eta hemen, gazteak, intelektualak batez ere, gizarte aberatsaren kontra jotzen asi ziran zartadan, Greziako antzinako zinikoen antzera (2).

M. gaztedi biurriaren pontifizerik handienetako bat dala uste dute batzuk. Ikustekoa litzake iritzi hau, baina, dana dala, gaurko eboluzioaren ezagutzaille handi bat dugu M. filosofoa. Berak gizarte modelu berri bat erakusten digu, alegia, teknikako razionalismotik sor zorian dagoan gizarte berria.

Erabatekoa ez bada ere, M. marxista omen da (3). Gaurko gizartearen bilakatzea bere gisako marxismoaren arauaz ikusten bide du berak.

M.-ren analisa ez da, nolana ere, asmakari uts bat, gure errealtatearen modelu baliotsu bat baizik. Analisa horren garrantzia agerian da, nere ustez, gaurko egoeraren neurria ematen digulako, saiets batzuetatik behintzat.

Gogor egiten diote batzuk M.-ri, utopista besterik ez dala eta gaurko prolemtatik deus ulertu ez duala, esanaz.

Utopista dala? Hori egia da, alajaina, bere lana, alde batez behintzat, utopia sailean ezarri dualako. Ideia hau, ordea, puntualizatu beharko genuke, aurrerago joan baino lehen.

François Chipaz jaunak bere M.-ri buruzko «Aliénation et Utopie» artikuluan, hau dio hain zuzen, ta zentzuz esana da, gainera: «L'analyse de M. renvoie bien à une utopie. Mais la question qu'il faut poser à son endroit n'est pas de savoir si cette pensée débouche seulement sur une utopie (ce qui serait le récuser d'une façon bien médiocre) mais bien plutôt si cette utopie marcusienne est en mesure d'ouvrir à l'histoire qui se fait, de la rendre intelligible et de la rendre possible» (4).

---

(2) Paralelismoren bat ba dago, dudarik gabe, gaurko protestako ekitearen eta ziniko mugimenduaren artean. Antistenes eta Diojenes-en filosofia errebisatu eta berballorazi beharko litzake gizon modernuaren aldetik.

(3) M. burges txikia dala irakurria dugu, aspaldi ez dala, prosa-paper batean. Hala izanen da jakintsu hoiak diotelako. Dana dala, bere marxistatatzat askok hartzen dute, nahiz eta bere marxismoa mekanizista ez izan.

(4) François Chipaz. «Aliénation et Utopie». «Esprit». 1969-1-ean.

Utopistatzat zuritu behar dugu M. jauna, utopia jenero oso garrantzikoa izan ditekealako.

Utopien historia erabat aztertu duan Derroches soziologoak, une hontan oso egoki dakiguen hitz berri bat sartzen du, bere terminologian. (5)

Izan ere, bereizkuntza argi bat egiten du egile honek, utopietan. Utopia batzuk, denbora-pasa ta txakur-amets batzuk besterik ez dira. Beste batzuk, berriz, Desroches-ek «ukoopiak» deitzen dituenak, alegia, historia ulertzeko ez-ezik, baita ere historioaren bi-deak zuzentzeko ta aldatzeko balio dutenak dira. Beraz ukoopi-egileak ez dira bakarrik amets-asmatazaileak, egiazko eragileak baizik. M.-ren analisa utopia ez-baino «ukoopia» deitu beharko genuke, bera historioaren martxa aldatzeko gauza baiditeke, besteak beste. Bestaldetik, M.-ren ukoopia hau, «self-defeating» deitzen diran igarpen hoietako bat dala esan beharko genuke.

«Self-defeating» eta «self-fulfilling» hitzak aita Merton zanak asmatuak dira eta Aranguren jaunak ere bere «El marxismo como moral» liburuan erabiltzen ditu. (Self-defeating: «profecía que, en parte, no se ha cumplido *precisamente* porque ha sido formulada»). M.-k igarpen bat egin du, gizarterik aurreratuenetan dialektika hilko dala esanaz. Eta *hain zuzen ere*, igarpen hori egina danez gero, dialektika ez da hilko ote. «Contestation» mugimendu dalakoak olatu berri bat sor-arazi du, gazteen artean, eta dialektika berriz ere agertu. Hori dala-ta, M.-ren ukoopia «self-defeating» dala diogu. M.-k ateka gorri batean gaudela esaten digu, dialektika gabeko Historiorik ez baiditeke izan. Eta esan horrekin protesta mugimenduari bultz handi bat egiten dio, egin ere.

Baina horrelako atekatik zein moduz aterako geran ez dakiala airtortzen du berak. Hau da, noski M.-ren teoriaren akatsik handiena.

Azterketa asko egin dira, aspaldi hontan, gizarte teknologikoaz. Hoi en artean M.-na da, behar bada, sakonena eta zorrotzena.

(5) Henri Desroches. «Viajes por ucoopías». Rev. «Comunidades», Madrid. Mayo-Agosto 1966.

Gizarte teknologikoa ez da bakarrik gizarte kapitalista edo konsumoko gizartea. Nahiz eta gehienetan M.-ren kritika USA-ko gizarte kapitalistaren aurkakoa izan, bi aldetikako herri industrializatueri ezar ahal dakieke, bi gizarte hauek teknikaren antzaz eta itxuraz ukazinoa dalako.

«One dimensional man» iduria oso egokia dirudi gizarte teknika-kolakoaren fenomenua azaltzeko.

Gizarte industrializatuetan, nahiz eta sozialistak izan, alienazio berri bat agertzen da, M. jaunaren ustez, antzinakoak baino gogorra-goa dana. Gaurko gizonaren zorientasuna alienaziotzat ikusi behar dugu, nahi ta nahi ez, zibilizazio aurreratua gizon konkretuaren ukazinoa dalako.

André Gorz jaunak argi ta garbi esan du: «La société d'accumulation socialiste a reproduit le divorce entre l'individu concret et l'individu social» Eta handia da marxista batek honako hau esatea. Baina nun arkitzen da ondamen horren zergatia? Dialektikaren heriotzean, erantzun genezake M.-ren ideiarri jarraituaz.

Mahatma Gandhi zanak, honako hau esan ohi zuen, bere herriaz mintzatzerakoan: «Nagusikeriari «ez» esateko indarra galdu dugu». Eta berak, Genève-ko interview famatu batean, beste hau esan zuan: «Kapitalismoak fusilak, ametrailak eta pozoineko gasak eskuetan izateak ez du batere axolirik, langileek «ez» esateko bortzari eutsi ezker». Izan ere, horixe da gizarte industrializatuetan gertatzen dana: dimensio bateko gizonak «ez» esateko kemena galdu. Galtze hau, ordea, ez da indarka, gogorka, bortxaz eta zigorrez egi-ten, baizik, atseginaz, plazeraz, eta aietasunez.

Teknokrazia, Kalipso ninfaren antzekoa da, eta gaurko gizona beraren sareetan lotuta dagoan Ulises bat.

Lotuta esan dugu, eta ondo esan gainera, zeren «feliz coincidencia» dalako bategatik, euskeraz «lotu» adjetiboak, «ensorcelé» eta «enchainé», biak batera, esan nahi ditualako. Eta hori da, hain zuzen ere, dimensio bateko gizonari gertatzen zaiona.

Historiaren indarra, ukazinoa ukatzean dagoala esan ohi digute marxistek.

Bortzaz eta zigorrez lotuta dagoan herri edo klase bat zapaltze horren kontra altxatzen da.

Baina gaurko teknokrazia —utopia sailean irauten dugu beti— gizonaren behar guziak asetzeko eta kontradizino guziak integratzeko gauza omen da. Hortik dator, M.-ren iritziz, dialektikaren akabantza eta Historioaren fina.

Nahi ta nahi ezkoa dugu, beraz, une hontan dialektikarik gabeko eta ukatzerik gabeko gizartea. Eskapatzerik gabeko gizartea.

Dimensio bateko gizarteak, gizonaren beharrak maneatzeko ditu, bere itxurara ta gisara. Hoietakoko behar batzuk betetzen ditu. Beste batzuk, berriz, baztertu eta ahantzi arazi.

Gizona, beharrez jositako izaki bat da, alegia, «un ser de necesidades». Marx-ek argi ikusi zuen hau, eta «beharraren dialektikaz» mintzatu zan. «Le besoin est à la base de l'histoire et de la société. Supprimer les besoins de l'homme, ce serait corrélativement supprimer sa culture, à la fois comme culture de lui-même et comme monde cultivé et humanisé par lui» (6).

Baina beharra ez da bakarrik fisikaren aldetik ikusi behar. Simone Weil andre idazleak, agirian ipini zuen bere «L'enracinement» liburuaren asieran, beharraren dialektikaz mintzatzean: «Parmi ces besoins —Weil andreak zion— certains sont physiques, comme la faim elle même (...) D'autres n'ont pas rapport avec la vie physique, mais avec la vie morale (...) Ce sont, comme les besoins physiques, des nécessités de la vie d'ici bas. C'est à dire que, s'ils ne sont pas satisfaits, l'homme tombe peu à peu dans un état plus ou moins analogue a la mort, plus ou moins proche à la vie végétative».

Benetan, gizonak, gizon danez, eta gizartean dagoanez, behar asko ditu, fisikoak ez direnak: erresponsabilidadea, askatasuna, ohorea, partizipazioa, kultura... Behar hauek ez bazaizkio asebetetzen, heriotzaren antzeko egoera batean erortzen da gizona. Ez da gehiago gizonik, gauza edo animalia baizik.

(6) Ik. J. Y. Calvez «La pensée de Marx», 388, 389 horrietan.



Beharra da, beraz, kontradizino ta ukazino guzien iturburua. Beharraren dialektika garbi ta naturalki jokatzeko baldin bada, gizartea gizartetako da, eta gizona gizartetu. Historia aurrera egiteko, nahi ta nahi ezkoa da beharraren dialektika. Hori dala-ta Marx-en beharren iritzian, gizarte komunistetan ere jarraitu behar litzake joku hori.

Baina zer gertatu da, eta zer gertatzen?

Lehenengo kapitalismoa, gizonaren premiak bete ordean, premia haueztaz baliatu egiten zan gizona maneatu ta menderatzeko (7). Lehenengo gizarte industrialetan, langileek bere behar premiatsuenak ere, ezin bete zitzaizkion, eta hortik miseria ta zapaltzea.

Gaurko egunean, berriz, teknika aurreratuari esker, gizarte aberastak erreztasun ta aisetasun guziak eskeintzen omen dizkio jendeari. (Ukooipiaren erreinuan gaudela ez ahanzi).

Baina gizarterik aurreratueneke behar batzuk betetzen badituzte ere, beste batzuk, batez ere sistemaren kontra izan ditezkeanak, ito arazten dituzte.

M.-k dionez (8) fenomenu hau, alegia, «azkatzea» eskatzen duten beharrak itotzea ta gordetzea, guztiz berezikoa da gizarte teknologikoan. «C'est caractéristique de la société industrielle avancée la façon dont elle étouffe ces besoins qui demandent libération, y compris le besoin de se libérer de ce qui est supportable, avantageux et confortable».

Azkeneko oharpen honek oso inportantzi handia du, M.-ren ideiak ulertzeko.

Gaurko gizarteak bere atsegin ta erreztasunak harrarazi nahi dizkiugu. Ez digu lajatzeko abantail hoi loturaz libra gaitzela.

Berriz ere Ojijia ugartearen izena gogoratzen zaigu, Kalypso ninfak lotutako Ulises gozo ta atseginez josirik zegoan ugarte. (9)

(7) «On se sert des besoins de l'homme pour l'asservir». J. Y. Calvez, alpatutako liburua, 387-an.

(8) «L'homme unidimensionnel». Ed. de Minuit, 32 or.

(9) Antzinako «Nouveau Dictionnaire historique» (Caen 1786) liburuan, honako hau irakurtzen dut: «Elle (Kalipso) habitoit l'isle d'Ogygie, que l'on presume être l'isle Goxo. Azkeneko hitz hau, berriz ere euskera Paradisuari mintzatzen zanaren froga irrekusalea da.

Askatasuna da, hain zuzen ere, gizonaren behar handienetako bat, baita zapaltzeak gozo-itxura hartzen duanean ere.

Askatasun beharra ito eta gordetzeko beste gezurrezko oharra asmatzen ditu dimensio bateko gizarateak. Gezurreko libertadeak. Adibidez, USA-n gertatzen omen dan bezala, «la liberté d'une presse qui se censure elle même», «la liberté de concurrence de prix preablement arrangés», etab.

Esandako hau ez da oraindik handiena. Handiena da, M.-ren iritziz, dimensio bateko gizaratean askatasun ideia bera falsifikaturik egoten, benetako zapaltzea dana jendeak libertadetzat hartzen dualako.

Aipatutako falsifikatzea lan fina izan ohi da. Zero egiztatua, teknika ta zientziatzko legeen aldetik. Nor ausartuko da aurrerapenak emandako abantail eta atseginak salatzen?

Antzinako gizarateetan, premia ta behar gorriak ageri ziran, eta hortik etortzen zan kontradizino ta ukazino. Baina orain, M.-ren ukoopian, ez da deus ikusten, mundu onen-onenean bizitzea iduritzen baizaio gaurko gizonari.

Ikusi dugunez dimensio gabeko gizaratea eta dialektika gabeko gizaratea gauza bera dira M.-ren pentsacran.

Idea hau zero eta sakonki erakusten du M. jaunak bere «One dimensionel man» liburuan. Adibide batzuk besterik ez ditugu emango entsaio hontan.

Lehenengoa, trajeria. Trajeria zan, antzinakoan, dialektikaren forma bat, nahiz ta idealista izan. Giza-errealitatearen kontradizinoak azaltzen zituen. Ukatze-indar bat zan. Lurreko botereen kontra jotkatzen zuelako, misteriozko trazendencia baten izenez.

Erljio-itxura zuen, benetan, eta erlijioak berak bezala dialektika bat sar-arazten zuen giza-munduan. Eta gaur zer gertatzen da?

Psikiatria ta trunkilizanteak asmatu ziranez geroztik, trajerian norik sinistuko du? Gizarte hunek —dio M.-k— (10) trazendenziaaren irudipenik maiteenak ezeztatzen ditu. Aterik gabeko zorigaitzak arrunteko eginkizun biurtzen ditu. Kontradizino guziak maneagarriak

(10) Liburu aipatua, 95-ean.

direla erakusten du. «La tragedie, le roman, les anxiétés et les rêves primitifs sont susceptibles d'une solution technique ou d'une «disolution». Le psychiatre prend soin des Don Juan, des Roméo, des Hamlet, des Faust, comme il prend soin d'Oedipe. Il les soigne! ».

Ez dago, beraz, gehiago trajeriarik, ez pekatu-rik, ez halabeharrik. Mirikuntza besterik ez.

Ez gaitzen mintza arimaren ixilpeko trajeriaz. Inkesta ta estadistika-makina bat berehala egingo ligukete teknologoe-  
k, eta izkutua guziz suntsituko litzake.

Trajeriari buruz esan duguna poesiari ere ezar leki-  
oike. Poesiak trazendencia behar du, nahi ta nahi ez. Danaren eta ez danaren artean dialektika bat sor-arazten du. M.-k berak, Paul Valery olerkariaren esanbide bat ekartzen du arira, «la langage poétique ne parle jamais que de choses ahentes» esaten duana.

Olertiak, egiazkoa izateko, «la marca de lo insólito» ezarri behar du gauza guzietan, Bertold Brecht-ek esaten zuen bezala. Baina, nun izango ote da, gure gizarte mekanizatuan «insólito» hori?

«Insólito» konzetua publizitaterako hitz bat biurtu da.

Kontradizino ta trazendencia gabeko poesia sistimaren morroia da, besterik ez. Izen soila bilakatu da, izen utsa, batere kontenidurik gabe gelditu dana.

Antzinako gizarteetan, poesia eta trajeria errealtatearen ukoa ta erreusa ziran. Orain berriz «le refus est refusé», M.-k dionez. Eta bi horieri buruz esan duguna beste erti guzietaz esan diteke. Eta filosofiari, eta erlijioari buruz. Are gehiago politika integratuari buruz, Amerikako sindikato integratuari buruz, etab.

Analisa hau zearo egiten du M. jaunak. Oso interesgarria izango litzake bere pausuak jarraitzea, batez ere filosofia alorrean. Baina irakurleak berez egingo du, M.-ren obra, behar dan arretaz, aztertuz ta egiztatuz gero.

*Karlos Santamaria*

## *Eguzkialdeko aize boiek...*

RIKARDO ARREGIK

Zergatik idatzi, giro hontan, M.-ren liburu hontaz? Gure Herriaren egoera hontan hau idaztea ez ote da izango benetan lan egin nahi ez dutenen espekulazio elegante bat besterik? Ezin geldi nindeke nere buruari galdera hau egin gabe. Hori egin gabeko sosegua, gezurrezkoa bailitzaidake.

Bainan, gezurra baldin badirudi ere, zerbait pentsatu ondorenean idazle bezala egin dezakedan lanik konkretoenetakoa dela uste dut. Ta horrexegatik praktikoena. Hau bi arrazoiegatik,

Euskal Herriko idazle ta pentsalari batentzat euskeraz idaztea lehen konprometitze bat da. Euskeraz idaztea hautamen bat egitea da, erderaz egitea den bezalaxe.

M.-k bere «Sobietiar Marxismoan» (Soviet Marxism) gure euskaldun-arterako ere oso inportantea den arazo bat planteatzen du. Hori aipatzea ta pentsatzea ez dut uste iheskeri bat litekeanik. Lan hontarako M.-ren hiru liburu irakurri ditut: «Sobietiar Marxismoa», «Dimensio bakarreko gizona» eta «Eros eta zibilizazioa». Hoietatik lehendabizikoa bakarrik estudiatu dut. Penaturik nago «Arrazoa ta erreboluzioa» izenekoa irakurtzerik ahal izan ez dudalako. (Guretzat, Euskal Herriaren belaun galdu honentzat, beta izatea da loteririk handienetakoa). Ta pena dut ez irakurria, lan hontarako beste bi liburuak baino premiagokoa nuelako.

Aurrez aurretik M.-rekin desengainamendua izan dudala aitortuz. Filmekin gertatzen dena gertatu zait neri ere. Adiskideek dizute: ikus halako filma, ezin hoberik. Orduan esperantzaturik

ba zoaz filma ikustera, baina filma ez zen zuk espero zenuen bezain ona. Beste horrenbeste gertatu zait neri ere M.-rekin. Hala ere aurre-iritzirik gabe hurbildu nahi nuke M.-rengana. Ta ba da aurre iritzi franko.

Hemengo zenbait marxista «ortodoxoentzat» (komunismotik at sortu diren marxismoaren ortodoxia berrietaz ari naiz noski) M. filosofari burges txiki bat edo marxismoaz alegiazko zientzia egiten duen norbait da. Komunista ortodoxoentzat M. sozialdemokrata bat eta amerikanoen morroi bat besterik ez da, inoiz Frantziako Duclos buruzagi komunistari irakurri izan diotenez. Beste batzuentzat berriz, RAMPARTS Estatu Batuetako ezkertiar aldizkarian irakurri izan dudanez, M. «erreboltaren metafisikoa» da.

Baita ere, ba dira marxismo ortodoxoaren aurka argitaratu den azken liburuaren zai egoten direnak. Hauek berehala baliatzen dira M.-rekin delako marxismo horri par egiteko.

Eklektikoa banintz, ez bat eta ez beste esanaz elegante geldituko nintzake. Hori ez da ordea nere asmoa.

Gure filosofoak «Sobietiar Marxismoa» liburuan gure egunetako prolemen artean inportanteenetakoen baten analisia egiten du. Egia da liburu hau 1958-gn. argitaratua izan zela. Baina 1963-gn. frantzesera itzulikatutakoan, egileak berak, ez dagoela aldatu beharrik dio. Ordu ezkerotik beste sei urte pasa dira. Sei urte hauetan aztertzen duen gaiarentzat gertaera latzak izan dira. Hala ere liburuak —gaiak esan nahi dut— behinere baino gaurkotasun handiagoa du. Bai nazio arteko arazoetan, bai gure artean ere. Horregatik liburu honen irakurketa besterik ez dut egingo oraingoan. Irakurketa laburra. Egunen batean irakurketa hau pentsatzeko asmoa dut. Liburuaren irakurketa inportantea deritzait, gaiaren planteamendua zehaztuta aurki dezakegulako. Ta hori M.-k liburu hontan ematen dituen iritziekin ados izan edo ez. Aurrera joan baino lehenago argi utzi nahi nuke, beraz, benetan interesatzen zaitela gaia. Ta gai hontaz pentsatzeko M.-ren liburu bide bat dela. Besterik da bide hori zuzena edo okerra izatea. Nere iritzian, era batera edo bestera, zehazki gaiaren muinera naramaki. Askj dut.

1.—*Helburu hortarako bideak*

Marxismoaren egitura dialektikoak dionez proletalگو industrialaren erreboluziogintzak bakarrik bete dezake bide hori, transizio hori. Izan ere, transizio hortan elkartzen dira zibilizazioaren aurrerapena ta proletalگو industrialaren erreboluziogintza. Baina proletalگوaren erreboluziogintzak klase guziak deseuztatu egingo ditu ta, horrexegatik, proletalگوa bera ere klase bezala hil egingo da.

Kapitalismoaren benetako eboluzioak, ordea, elkarganatze historiko hau gainditzeko beste modu bat azaldu du: proletalگوak klase erreboluziogile izateari utzi eraziko dion borrokan dauden bi klaseen arteko erlazioaren aldaketa fundamental bat sortu dela. Posibilitate hau da, behar bada, inportanteena sobietiar marxismoaren eboluzioarentzat.

Posibilitate hontaz marxismoa ohartua zegoen. Baina aldakorra ta epe motzekoa izango zelakoan zegoen. Gauza diferente gertatu da ordea. Nazio industriatsu aurreratueta, kapitalismoaren eboluzioak luzarora, proletalگوa klase borrokara baino gehiago klase-arteko kolaboraziora bultzatzen badu, marxismoaren kategoria tradizionalak ez dute lekurik. Orduan, historiaren baitan beste epe bat hasten da ta marxismoak sozialismorako bideak birdefinitu beharko ditu, ta epe hortarako estrategia bat pentsatu.

Marxek dionez historiaren epe berria aurreko epearen «halabeharrezko ukazioa» da, epe berria aurrekoaren egitura sozialek hala-behartzan dutelako.

Denok dakigunez, Marxen iritzian proletalگوa klase erreboluziogile bezala organizatuko da ta xistima kapitalistaren baitan honen hilibiratzaille izan beste eginkizunik ez du izango.

Baina kapitalismoak normalki bizitzen jarraitzen badu, eta langileen bizimodu-maila altxatzen badu, gerta diteke hauek xistima kapitalistaren elemento bat izatea, baina honentzat positiboa izan ditekean zentzu batean.

Marxek ikusi zuen hori. Hortarako distintzio bat egin zuen: proletalگوaren benetako interesaren eta berehalako interesaren artekoa.

Distinzio hau estrategia ta taktikarenaren artekoarekin bat egiten da. Proletalgoa objektivoki klasea izan arren, honek hasieran ez du errealitate horren kontzientziarik. Hori egiago zen, behar bada, egun haietan, gaur baino. Horregatik, errealitate hortan, proletalgoaren heldutasun-eza ikusten zuen eta hutsune hori langile klasea radikalitzeak beteko zuela uste zuen. Ekonomiaren harreman sozialak berak, bere eboluzioan garrazten joango ziranetz, sor arasiko zutela proletalgoaren kontzientziratze hori.

Bainan finean Marxek, bere «Kapitala» liburuan, errealitateaz gehiago oharturik, bi konzeptu berri sartu zituen. Batetik, kapitalismoak bere heriotza uxatzeko bere baitan «kontrajoerak» sortuko zituela. Bestetik, ba zirela bere analisisian «baztertutako faktoreak» (nekazaritza esate baterako).

«Kontrajoeren» eztabaida marxismoan nausienetakoa da «inperialismoaren» eta «finantza kapitalaren» dotrinekin.

Dotrina hauek 1900 inguruan kapitalismoa etapa berri batean sartu zela diote. Bainan dato honetatik bi interpretazio sortzen dira. «Erreformista» da bat. Bernstein izango da interpretazio honen teorikoa. Honek dionez, proletalgoak kapitalismoaren baitan bere ekonomia ta politika bizimodu-maila hobetu dezake, ta sozialismoa medio legezko ta baketsuen bitartez jaso dezake. «Ortodoxoa» da bestea. Lenin izango da hontan.

Leninismoak bere agerketa marxismoan bi faktoreek bultzata egingo du: 1.—nekazariak marxista teorian eta estrategian sartu ahal izateko. 2.—inperialismoaren garaian kapitalismoaren eta erreboluziogintzaren joerak birdefinitu ahal izateko.

Teoria honek —Leninenak alegia— 1900 inguruan sortutako kapitalismoaren etapa berria aldakorra ta haula dela zion. Marxismoaren interpretazio «ortodoxo» honek kapitalismoaren ahalmen politikoak eta ekonomikoak baztertu egiten ditu, eta baita ere proletalgoaren aldaketa.

Leninek «ekonomikeriaren» kontra eta masaren berekasako ekin-tzaren kontrako borrokarekin, proletalgoari «klase kontzientzia»

kanpotik ekarri behar zitzaiola esatearekin, proletalgora erreboluziogintzaren suieta izatetik gai izatera pasatzen ari zela nabaitzen zuen. Hortik abangoardiaren ideia, hortik antolamendu erdikoituaren beharra.

Era hontara leninismoaren estrategiak, hitzetan ukatzen zuena, egi-teetan ametitzen zuen: erreboluziogintzaren eragile (suieta) ta gai (objeto) baldintzetan aldaketa sustraiko bat izana zela.

Hilferding-ek —1910 gn argitaratutako *Finanzkapital* liburuan— izan zen aldaketa hau marxismoaren funtzioan interpretatu zuena. Honentzat kapitalismoa monopolioratuz dioa. Posible izango zaio honela xistima kapitalistari bere kontradizioak menderatzea. Hilferding-en iritzian kapitalisten nazioarteko planifikazio honek liberalismoa demokratiarren heriotza eskatzen du eta baliogo gizatiarren ordean abertzalekeria ta kaisarkeri borrokalaria ezartzea era berean. Bainan Hilferding-ek ez zituen bere teoriatik ondorio guziak atera. Mendebale aurreratuan gertatutakoek Marxek definitu zuen kapitalismoaren egitura aldatu egin dute. Marxistek ziotenez mendebaleko Estadu hoiaren artean etsaigoa sortuko zen eta orduan langile bizimodu-maila altxatzea (eta horregatik bere interes berehalakoa ta benetakoa diferentziaztea) posible egin zuten produktibitatea ta gaintzeko teknika lertu ta autsi egingo zuten. Bainan Sobieten Batasunaren izanak berak isildu ditu etsaigo hoiek.

Esandakoagatik komunistek lehen gerla nausiaren ondorenean integratu gabeko langileetan eta nekazarietan finkatu beharra izan zuten. Hauek azaldu dira, erreboluziogintzarako eragile bezala. Eta hau —marxismoak esandakoaren kontra— erreboluzioa gutxi industriatutako nazio atzeratu batean gertatu zelako.

## 2.—*Haiek bere buruaz diotena.*

Marxistek erreboluzioa kapitalismoa heldu ta osatu zen nazioren batean lehertuko zela uste zuten. Erreboluzio hau kapitalismo heldu horren halabearrez langile klase kontzientziratua egingo zuela. Hori ordea, ez da horrela gertatu. Erreboluzioa Herri gibelatu batean gertatu da.



Aurreneko urteetan Lenin Alemaniako erreboluzioa lehertu zai egon zen, ez bai zuen posible ikusten sozialismoa Herri gibelatu batean jasotzerik Herri aurreratu bateko erreboluzioaren laguntzik gabe.

Alemaniako Erreboluzioa menderatua izan zenean, ordea, Leninek bere ondorioak atera zituen. Ordu ezkeroztik sobietiar marxismoa bikoitasun batean bizi da. Batetik —marxista izaten jarrai nahi duelako— mendebaleko Herrietan langile klasearen egituraren aldaketak ukatzen ditu eta klase hori erreboluziogile bezala begiratzen jarraitzen du. Baina bestetik Sobieten Batasunak sozialismogintzarako hartu dituen neurri guztiak mendebaleko langile klaseak bere erreboluziotasuna galdu balu bezala eta kapitalismoa sendotuz bali-joa bezala hartu ditu.

Horregatik —Leninek zionez— Errusian sozialismoa jaso ahal izateko lehendabizi estaduaren kapitalismoa altxa behar, hau gabe beste ez bai da posible. Horregatik —baita ere— sobietiar Estadia luzaroan estadu kapitalistekin batera bizi beharrean aurkituko da. Mendebaleko estadu kapitalistek klase-arteke bakea sortzeko langile klaseari zenbait abantail eman beharrean aurkitu ziran. Hortarako Herri gibelatuen esplotazioa —inperialismoa— sendotu zuten. Teoria honekin Lenin Hilferding-en tesi-tara hurbiltzen da (hau da Herri inperialista aurreratueta kapitala ta lana bateratzen dituen nazio interes bat sortzen dela).

Gauzak honela, erreboluzioak bi sustrai izanen ditu. Inperialisten arteko etsaigoa batetik —hortan finkatuko da sobietiar Estadiak bizitzen jarrai ahal izatea—, eta eguzki-aldeko ta hirugarren munduko nazioen erreboluziogintza besterik. Sobieten Estadiak protxu atera behar dio, beraz, inperialisten arteko etsaigoari, honela bakarririk izango zaio posible nazioa industriadzea.

Hemendik dator «sozialismoa lehendabizi Herri bakar batean» dioen teoria ta jokabidea. Baina sobietiar marxismoak Herri aurreratu- en proletalgoak erreboluzioa egingo duela baldin badio ere, hori ez dela gertatuko uste balu bezala jokatu du. Stalinen estrategia guzia hortan finkatzen da. 1935-gna. ezkeroztik jaiotako «fashismoaren kontrako fronte bateratua» errealtate hori ezagutzeko pau-

so berri bat da. Era hortara alderdi komunistek «programa minimo» bat onhartzan dute eta burges-demokratiar estatuaren joku-arauak errespetatzeko prest daude.

Bigarren gerla nausiaren ostean, inperialisten arteko etsaigoak isildu egin ziran sobietarrei fronte bateratu bat presentatzeko. Ondorio bezala gertaera honek Jdanoven dotrina sortuko du. «Bi alorren» dotrina da. Dotrina honen bitartez inperialisten batasuna, oraingoz, Sobieten Batasunarenganako borrokak inperialistek bere artean duten borroka menderatzen duela esanaz esplikitzen da.

1949-gna. ezkerostik mendebaleko komunistak «frente bateratuaren» politikara bueltatuko dira berriro. Behin bitartean, eguzkialdeko komunistek gogorrera joko dute. Izan ere Stalinen garaian bi aldetako komunisten politika ez zen behinere ondo koordenatua izan. Hala ere sobietiar marxismoaren tesi ofiziala kapitalismoaren krisi jenerala da. Kapitalismoaren azken hatsa inperialismoa izango da. Bainan inperialismoak bezala funtzionetzerik ez du izango ta horregatik sortuko da inperialisten arteko etsaigoa.

Kapitalismoaren krisi jeneralak ez du esan nahi berehala hil eta giro erreboluziolariren bat sortuko denik. Krisi hori historiaren epe luze bat dela besterik ez.

Epe luze hortan Sobieten Batasunak bere burua industriatu egin behar du, gibelatua zegoen nazioa Estatu kapitalista aurreratuen mailara heldu arte. Horregatik kaltegarria litzake Sobieten Batasunarentzat estatu inperialistei gerla egitea. Gerla honek inperialistak bateratu egingo bailituzte, eta Sobieten Batasunak bere burua industriatzeko premiazkoa du inperialisten arteko etsaigoa, honek bakarrik ematen baidio arnasa ta beta sobietiar industriatzeari. Era hontara «sozialismoa lehendabizi Herri bakar batean» eta «bake koexistentzia» sobietiar marxismoaren muin muinean sortzen dira. Bi borroken artean —inperialisten artekoa eta hauena sozialismoaren kontrakoa —giro bakoitzean errealitatea esplikatu ahal izateko, bateri edo besteari emango zaio nausitasuna.

Sobietiar marxismoaren kontradiziorik handiena kapitalismoaren estabilizazio iraunkorrak sor erazten du. Horregatik sobietiar mar-

xismoaren mintzamoldea erreboluziolaria izan arren, honek ez du erreboluziorik espero mendebaleko langile klase aurreratuetatik. Honela mendebaleko alderdi komunistek sozialdemokrazia ezkertiar baten papera egiteko joera dute.

Inperialismoaren sendotzearekin kapitalismoaren estabilizazioa iraunkorragoa bihurtzerakoan, liberalismoak atzera egin du ta kaisarkeria sendotu egin da. Honela mendebaleko alderdi komunisten joera zerean egongo da: lehendabizi burges demokrazia berpiztean. Hortarako burges demokratiarrekin aliatu nahiko dute.

### 3.—*Arrazoiketa berria.*

Sobietiar gizartea, kriterio hauekin jasotzen ari da:

a.—Erabateko industriadun, produzioaren jabeago herritartuaz, batez ere «A» sailari lan tresneriaren produziari) nausitasuna emenez.

b.—Nekazaritzaren kolektibizatze progresiboa, koljoziar jabeago estatuaren jabeagoan bihurtuaz.

d.—Lanaren mekanizatze jenerala, formazio «politeknikoa» hedatuaz, hiriko ta basherriko lana «berdindu» ahal izateko.

e.—Bizimodu-mailaren altxatze progresiboaz baina «a» ta «b» punduei menderatuaz.

f.—Lanerako moral berri bat, sortuaz «emulazio sozialista» deritzaiona, eta trazenzenzia guzien ukazioa («sobietiar errealismoa»).

g.—Estaduarien, alderdiaren eta lantegien bulegokrazia gordeaz, orain arteko puntu guziak bete ahal izateko.

h.—Honela lortutakoaren partiketaz.

Honela pentsatzen du sobietiar marxismoak sozialismotik komunismora pasatzea. Transizio hau dialektikoa izanen da noski. Kontrazioen dialektika. Kontrazio hauek sobietiar Estaduari lehertu gabe menderatu ahal izango ditu, berak zuzentzen duen ekonomia sozialistaren bitartez. Xistimaren baitan kontradiziorik gogorrena indar produktiboen haziketaren eta hauei buruz produkzio-erlazioen

atzerapenaren artean egongo da. Bainan administrazio-bidez menderatuko da kontradizio hau. Komunismorainoko pauso neurtu hau estabilizatutako kapitalimoarekin «koesistiturik» emanen da. Gertaera honek xistimatik at sortuko dituen kontradizioak nazio kapitalista aurreratu batzuetan lehertuko den erreboluzio sozialistak konponduko ditu. Bainan hau epe luze baterako da, behin bitartean sobietiar Estatuak behar bezala industriatu ta indartu ahal izateko Estatu kapitalistekin bakean bizi behar du. Horregatik kapitalisten arteko etsaigoak astinduko ditu eta hauetan esperientzia erreboluziogileak uxatu egingo ditu.

Esan dugun guziak ekonomia herritartzea baino zerbait gehiago adierazten du.

Zerbait naziokotzea, behetik basiak naziokotutakoa kontrolatzeko mediorik ez badu erabaki tekniko bat besterik ez da. Eta basiaren kontrol hau sobietiar Estaduan aurkitzen ez denez, Estatu honen eraketa zapaltzailea egiten da. Bainan aurrerapen teknikoak eta produktibitatea ugazitzeak xistimaren eraketa zapaltzaile honi kontra egiteko joera du. Kontrajoera hauetaz kontzientziratzea Stalinen ondorengo garaietako liberalizazioan agertu da. Delako liberalizazio hau ulertzeko ezin ahaz diteke sobietiar Estatuak bere indus-triatze azkarragatik mendebaleko Estatu aurreratuen liberalismo garaia saltatu duela. Hortik dator sobietiar xistimak liberal kutsuko joeren kontra duen borroka.

Liberalismoak dionez, gizabanakoaren interesak ta guzien interesak egokitu egin behar dute. Aurrerapen teknikoek elkarren artean etsai diren bi joera sortu ditu. Batetik gizabanakoari denbora ta indar libre gehiago eman dio, bainan bestetik konformismoa ekarri du. Era hortara gizabanakoak bere izantasuna zabaldu beharrean aurrez emandako araua errespetatu egin behar du. Gizabanakoaren interesa ta interes orokarra ez dira beraz egokitu. Liberalismoak ziona amets hutsean gelditu da.

Prolema hontaz Urrileko Erreboluzioak «produzioko erlazioen» eta «indar produzitzaileen izaeraren» arteko egokitasun bat altxa zuela dio sobietiar marxismoak. Honela altxatuko gizarteak, teoria marxis-

taren sentiduan definitutakoa, egiaren eta gezurraren arteko neurri bakarrean bilakatzen da.

Gizabanakoaren interesaren eta interes orokarraren arteko desegokitasuna sobietiar estaduan Urrileko Erreboluzioa ezkerotik deuseztatua izan dela ez da egia. Baina xistimatik kanpo desarrazoia dirudiana xistimaren baitan arrazoizkoa izan diteke. Izan ere sobietiar marxismoak ez du zerbait esaten duanean benetakotasunik eskatzen, aurrez-eman den egia bat bete beharra baizik. Esaten duanaren balioa pragmatikoa da, logikoa baino gehiago. Sobietiar marxismoak esandakoaren «egia» ondorioetan dago. Era hontara sobietiar hizkuntza ofiziala mendebalekoen kidekoa da, hauekin batera masa-gizarteetako hizkuntzaren gain-beherakadan parte hartzen baidu.

Esaerak, ezagutu erazteko balioa galtzen badute, eta efektibitateko mediotan bilakatzen badira, hizkuntza hori majikoa egiten da. Hau, bere burua logikotzat jotzen duen sobietiar marxismoarentzat absurdo bat da, baina basi objektibo bat du. Marxen teoria bete nahi badu, sobietiar marxismoak populu gibelatu bat «errealitatean» dena izatera ekarri behar du! Honela Marxen hizkuntza rito bat bezala gordetzen da. Marxen teoria, horregatik, sobietiar marxismoaren ideologian bihurtzen da, baina ideologia berezian. Izan ere ideologia hau ez da kontzientzia faltsu bat, faltsetate «objektibo» baten kontzientzia baizik. *Oraingo egoera* da faltsua, ta Sobieten Batasunaren eginkizun historikoa faltsetate honen zuzenketa da.

#### 4.—*Sozialismoa Herri bakar batean?*

Ikusi dugunez sobietiar Estaduaren jaiotza ta hazitze anormalek Sobieten Batasuna Estadu zapaltzaile bihurtu dute. «Sozialismoa Herri bakar batean» dion dotrina izan da zapalketa hau neurri handi batean justifikatu duena. Dotrina hau dela ta, sobietarrak sozialismoaren nazioarteko mailara pasatzeaz mintzatzen dira. Baina, Marxek dionez, klaseen borroka nazioartekoa da, ez da bidezkoa beraz nazioarteko mailara pasatzeaz jardutea. Sobietiar marxismoak ordea

erreboluzioa estadu kapitalista aurreratuetan garaile ez izatea justifikatu behar du. Eginkizun hori «bi alorren» dotrinak betetzen du. «Kapitalista» den alorra batetik eta Sobieten Batasunak gidatzen duen «sozialisten eta demokratiarren» alorra bestetik. Naiz eta «errealitatean» sozialista alorrekoa izan mendebaleko proletalgoa, geografiari dagokionez inperialisten alorrean itxita dago, ezin ditzazke beraz, horregatik, bere benetako interesak defenditu. Eginkizun hori sobietiar alorrean bildutako nazioena da. Horregatik Marxek zion benetako interesen eta berehalako interesen arteko borroka, bi alorren dotrinan, nazioarteko bi multsoen arteko borrokan bilakatzen da. Honela prolema sozialak politiko bihurtzen dira. Horregatik mendebaleko proletalgoaren klase interesak ez dute sobietarren laguntzarik aurkitzen Sobieten Batasunaren interesen kontra ez baldin badijoaz baizik. Ez da bidezkoa, orduan, klaseen borroka nazioarteko mailara pasatzen dela esatea, egokiagoa da borroka hori nazioarteko politika borroka bat bihurtzen dela esatea. Marxismoaren xedeak, indar produktiboen eta hauen eraketaren usantzaren izaera zapaltzailearen arteko etsaigoa deseuztatukoan beteko dira. Et erreboluzioak lan tresneriaren kontrola langilepean jartzen ez badu, bere izaeran, kapitalisten kidekoa izaten jarraituko du. Indar produzitzaileen eta hauen eraketa ta usantza zapaltzailearen arteko etsaigo ta desegokitasunak Sobieten Batasunaren barne politikan ta atzherri politikan kontradizioak sor erazten ditu. Atzherrikoen artean, esate baterako, Sobieten Batasunaren segurantza nazionaleren eta politika sozialistren arteko desegokitasunak.

Sobietiar Estadua kapitalista Estaduez inguratuta jaiotzeak eta hazitzeak, Estadu hortan xistima zapaltzaile ta errepresibo bat sor erazi du. Bainan xistima zapaltzaile honek berak sendotu du kapitalisten arteko batasuna. Mundu guzian erreboluzio sozialista ler dedin derrigorrezkoa da inperialisten arteko etsaigoa sortzea. Hortarako Sobieten Batasunak «bake koesistentzia»-ren politika sendotu behar du. Politika honek bakarrik sor erazi bailezake inperialisten arteko etsaigoa, ta orduan bakarrik akabatu diteke «sozialismoa Herria bakar batean» dotrinaren marxismoarenganako kontradizioa.

5.—*Hango Estaduaren dialektika*

Marxismoak dio, anarkismoaren kontra, sozialismogintzaren lehen epean Estadia gorde egin beharko dela, baina sozialismogintza aurreratzen den neurrian hil egin beharko duela, batez ere alde zapaltzailean. Besterik gertatu da sobietiar marxismoan. Han estadia ahuldu egin beharrean sendotu egin da. «Anormalitate» hau estadia kapitalista etsaiek inguratuta egon dela esanaz justifikatzen du sobietiar marxismoak.

Kapitalista inguratze honek sobietiar Estadia sozialismotik komunismora pasatzerakoan zutikan jarraituko duenez, estadia ahuldu ta ezeztatu beharrean lehenago bezain sendo segiko du pauso horren ondorenean ere.

Estaduaren desarrolloan inportanteena ez da bulegokrazi gobernariak dituen abantailak, honen agintearen basia ta hedaketa baizik. Bulegokraziak iraun egin nahi du. Bulegokraziaren baitan talde diferenteen artean borroka bat ba da. Sobietiar Estadiak bere gizartearen baitan kontradizioak ametitzen dituela ikusi dugu. Kontradizio hoiak lan sozialistaren eta jabego era diferenteetatik sortzen direla dio. Dударik gabe, Konstituzioak dionez, lan tresneriaren jabegoa herritartua dago, Herriarena da, baina herritartua egon arren ez du Herriak hori kontrolatzen. Hau honela bada, inportanteena ez da jabegoa, kontrola baizik. Bi kontrol suerte bereizi behar ditugu: tekniko-administratiboa ta soziala. Biak bat lirake jabegoa ta kontrola bat izango balira. Baina ez da horrela.

Sobietiar dotrinak dionez Alderdia da gizartearen kontrola duena. Alderdiaren agintea noraino heltzen den ikusi behar dugu.

Herriaren kontrolik ez dagonez bitatik bat:

—edo bulegokraziaren barruan talde berezi batek gainontzeko guztiak menderatzen ditu;

—edo bulegokrazia bera da «klase» bezala gaintasuna duena. Azkeneko hau da aztertuko duguna.

Ba dirudi bulegokraziaren baitan ez dagoela gainontzekoak menderatuko dituen talde berezirik. Bulegokraziaren buruzagitza bera da

aldatzen dena. Ekonomi ta politika bulegokraziaren errepresenta-tzaileek osatzen dute (ekonomiarenak, ejerzituarenak, alderdiare-nak). Bakoitzak gainontzekoak menderatu nahi ditu bainan joera honen kontra bi indar agertzen dira: Plana batetik eta bulegokra-zia guziak duen izialdura bestetik. Izialdura hori igarri ezin ditek-ean bortxakeriaren aplikazio erdikoiratu ta metodikoa da. Kondairak erakusten duanez aurrelaria edo atzerakoia izan diteke.

Sobietiar Estaduan izialdurak bi alde ditu: teknikoa ta politikoa. Alde teknikoak efikazi-eza guzia zigortzen du, politikoak konforma-gaitza den guzia.

Era hontara sobietiar bulegokraziak oinharririk gabe kausitzen da bere interes propioei iraun erazitzeko; populutik at egintea duen klase bat da, bainan politika jeneralera egokitu beharrean aurkitzen da. Politika jeneral hau, interes jeneral hau, ordea, ez da guzien eta bakoitzaren interesekin bat egiten, konzepto ideologiko bat beste-rik ez da.

Estadua benetako interes kolektiboaren manifestazioa da, bainan «oraindikan» berak zuzentzen duen populuaren interesekin ez da bat egiten: berehalako interes hauek interes kolektiboarekin ez dira bat «oraindik». Estaduak errepresentatzen duen gizartearen eta gi-zabanakoaren arteko desegokitasuna agertzen da hemen.

Sobietiar Estaduak uste du, produktibitatea indartzearekin, Estadu kapitalisten alderantzian, ahalmendua dagoela desegokitasun hori zuzendu ta konpontzeko.

## 6.—*Basia ta egituragaina. Errealitatea ta ideologia*

Marxismoak dionez Estadua egituragain bat da. Basiak halabehar-tzen eta zehazten du Estadua. Bainan honek ba ditu basia gaintzen dituen elementoak eta neurri handi batean beregaintasuna izatera iritxi ditezkenak.

Basiari buruz Estaduak bi eratara joka dezake: ekonomiaren desa-rrolloaren kontra jarriaz edo desarrollo honen buruzagitza ber bera hartuaz. Hontan bereizten dira Estadu kapitalista ta sobietarra.



Biak «egituragain politikoak» dira, hots, biak «ekonomiaren estrukturak» halabehartuta ta zehaztuta daude. Baina halabehartze ta zehazketa hau Estatu kapitalistetan itsua den bitartean sobietiar Estaduak «zuzendu» ta «kontrola» dezake. Ekonomia kapitalistak Estadua menpeko duen bitartean, sobietiar Estadua da Herriaren ekonomia zuzentzen duena.

Egituragainaren eta basiaren arteko erlazioak, beraz, erabat diferentek izango dira Estatu sozialista ta kapitalistetan. Sobietiar Estaduak bere burua sozialistatzat du noski, Basiaren eta Estatu sozialistaren arteko erlazioak sobietarrek nola ikusten dituzten jakin ahal izateko Stalinek idatzitako «Marxismoa ta hizkuntzaren prolemak» izeneko liburua kontuan izan behar dugu. Basiaren eta egituragainaren arteko erlazioa sobietiar Estaduan ez da antagonikoa Estatu kapitalistetan bezala. Horregatik sozialismogintzak eta komunismorainoko iraganbideak ez dute aurre-suposatzen sobietiar gizartearen eraberritzea, honen osaketa ta heltzea baizik.

Gertuagotik estudia dezagun basiaren eta egituragainaren arteko erlazio hau.

Marxentzat eta Engelsentzat ideologia ilusio bat da, baina derrigorezko ilusioa. Benetako basi sozialaren «kontraispilatzea» denez, ideologia egiaren parte bat da, baina egia hau oker eta zeharka adierazten da ideologian. Marxismoak ideologiaz duen usteak mogikortasun bat suposatzen du. Basiak ideologiari zenbat eta leku gutxiago utzi, zenbat eta gutxiago menderatu ta ezarritako ordenuari egokitu, orduan eta erreallitatek urrunduena dagoen ideologia (arte, literatura, filosofia) ordenu horrenganako oposizioaren babesean bihurtzeko joera izango du. Marxen ustean erreallitatearen eta ideologiaren arteko egokitasun hori proletalgoaren erreboluziogintzak bakarrik ardietsiko du. Baina Herri industriatsu aurreratutako enpresak erreboluzio sozialista galerazi duen bezala, marxismoak ideologiatik erreallitateara pasatzeari buruz zuen konzeptua aldatu egin du. Proletalgoak —mendebaleko gizarteetan— filosofi, hau izateratuaz, hiltzen ez badu, filosofia ez doa gizonaren atzetik, honen liberazioaren aurretik baizik.

Ikusi dugunez sobietiar marxismoak bere buruaz dionez sobietiar Estaduak pauso bat aurrera eman lezake basiaren eta egituragainaren arteko erlazioak aldatu gabe. Sobietiar xistimaren kontradizioak ez dira antagonikoak, horregatik buruzagitzza zientifiko batek zabalduko ditu bide berriak.

Xistima hortan interes orokarra Estaduari bat egiten da. Estadua, ordea, gizabanakoen interesetatik bereizitako batasun bat da. Gizabanakoen interesak oraindio asegabeak eta errealitateak uxatzen dituztenak diren neurrian, ideologiaren mintzabidea bilatzen dute; eta bere indarra handiagoa da propaganda ofizialak basi berria komunismoa giza-liberazioa eskeintzen duena dela dion neurrian. Arrazoi horregatik ideologiaren edozein traszendentziaren kontrako borroka xistimarentzat bizi ahal izateko borroka da. Filosofiak dakarkien traszendentziaren arriskua filosofia teoria ofizialaren mendea jartzearekin konpondu nahi izan da. Oraindikan izateratu gabeko libertatearen babesa den metafisikaren ordea materialismo dialektikoa ezarriko da. Hortik mendebaleko filosofia «burgesen» kontrako borroka latza.

Era berean artearekin, Sobietiar estetikak dionez ez dago ia kontraktasunik eta oposiziorik artearen eta zientziaren artean; artearen ideia ta logikarenak bakandu ezin dira. Honela uxa diteke edozein motako traszendentziaren usaia.

### 7.—*Dialektikaren gorabeherak.*

Dialektika marxismoaren muinean dago. Sobietiar marxismoak ez ditu dialektikaren oinharrizko konzeptuak aldatu, baina dialektikaren zeregin ber bera aldatu du. Sobietiar marxismoan dialektikak pentsamendu kritikoa izatea utzi du ta arau orokarrez jantzitako «mundu ikusmolde» bat bilakatu da. Hori edozein errebisio baino okerragoa da. Aldaketa hau teoria marxista ideologian bihur erazi duen ber bera da. Teoria marxistak erreboluziogintzaren kontzientzia ta adierazbidea izateari uzterakoan ta ezarritako xistima zapaltzaile baten egituragainetan sartzerakoan, bere burua hiltzen du.

Pentsamendu dialektikoa filosofia xistima batean arautzen da. Dialektika bera logika formalean bihurtzen da. Metodoa zena dotrina egiten da.

Ez Marxek eta ez Hegelek ez zuten dialektika metodo orokorra bezala osatu. Marxentzat, dialektika gizarte ta errealitate kontradiktorioentzat bakarrik da. Dialektikaren muina giza-liberazioa zen. Sobietiar marxismoarena ez. Ezin bestela izan, dialektikaren balioa klasedun gizarte baten kontradizioentzat baida. Sobietiar marxismoak bere burua klasedun gizarte hori gainditu balu bezala ikusten du. Teoria marxista «mundu ikusmolde» zientifiko orokar bat bihurtzen den neurrian dialektika «ezagueraren teoria» abstrakto bat bihurtzen da. Postkapitalista gizarteetarako ez da teoria marxistan baliozko «mundu ikusmolderik». Izan ere, lege antagonikoak —dialektikaren sustraia eta horrexegatik marxismoarena ere bai gizadi liberatuarentzat ez dute zentzurik.

Marxismoa materialismo historikoa ta dialektikoa da. Hegelek dialektikaren arauak «logikaren zientzia» bezala, Unibertsalaren baitan desarrollatu zezazkien, Ideiaren baitan. Marxismoak ordea Ideiaren hegeldar teoria ukatzen duelako ezin dezake dialektika logika bezala desarrollu ta zabaldu; bere Logos hori errealitate historikoan dago, bere orokortasuna historian dago.

Sobietiar marxismoak dialektika mundu ikusmolde zientifiko bat egiterakoan materialismoa dialektikoan eta historikoan bakandu egiten du. Dibisio honek ez zuen batere zentzurik izango Marxentzat, honentzat biak sinonimoak baiziran. Marxismoan, historia zen dialektika halabehartu ta baliotzen zuena. Sobietiar marxismoan, historiak bere leku berezia du. Hor dago diferentzia guztia; marxista dialektikaren lekua historia da, sobietiar marxismoan historiak leku bat du. Era hontara historia gauzatu egiten da, bigarren naturaleza bat izatera heltzen da.

Ba dirudi, horregatik, lege dialektikoen alde objektiboa ta halabeharrezkoa sendotu egiten direla, baina sobietiar marxismoak praktikan halabeharrezkoa ukatu egiten du, nahi izateari ematen dio indarra. Determinismoaren eta boluntarismoaren artean, azkeneko hau

hautatzen du. Joera honek Leninengan izan zuen hasiera ta Stalin-ekin sendotu zen. Alde subjektivo eragileek baldintza eta lege objektiboek baino inportantzia handiagoa hartu zuten.

Hala ere determinismoaren eta boluntarismoaren arteko oposizio abstraktoa, eutsi ezin ditekenean da. Marxismoaren hasieratik sortu da bi alde hauen arteko prolematika. Erreboluzio giroan bi aldeak ondo egokitzen dira, bainan giro hori leundu, ahuldu edo galdu egiten denean alde subjektiboek hartu behar dute indarra. Buruzagiek, abangoardiko antolamenduek eta gidariek dira proletalgoaren berehalako interesen eta benetako interesen arteko diferentzia eza-gutu erazten jarraitu behar dutenak.

Bernsteinen errebisionismoarekin dialektika gelditu egiten da ta halabeharrezkoa aldea sendotu ta indartu. Lenin erreboluziogintzan bi aldeak egokitzen eta lotzen saiatzen da. Ta 1923 alderarte lortzen du, bainan orainarteko determinismo joeraren haziak ereiten ditu.

Oraingo sobietiar liburuak dialektikan halabeharra erdiko delarik idazten dira. Alde subjektivoa ez da agertzen dialektika objektiboaren parte bezala, azkeneko honen ontzia bezala, esan betetzailerik bezala baizik. Alderdia ta bere buruzagitza bakarrik daude ahalmenuak dialektika interpretatzeko. Alde subjektiboen eta objektiboen arteko erlazioaz sobietiar marxismoak duen interpretazioak dialektika mekanikan bihurtzen du. Lehenago esan dugun bezala sobietiar Estaduan —sobietarrek diotenez noski— baziaren eta egituragainaren arteko erlazioak ez dira antagonikoak. Horregatik sobietiar gizartea sozialismotik komunismora Estaduak gidatuta pasako da. Honela «ukazioaren ukazio legea» lege dialektiko nausienetatik desagertu egiten da. Marxek zionez, sozialismoa da kapitalismoari buruz «ukazioaren ukazioa». Alde hortatik dialektikaren sobietiar errebisioa «ortodoxoa» da. Sobietiar marxistek sobietiar gizartea sozialista dela diotenez logikoa da gizarte horri dialektikaren aldetik izaera egokia ematea. Bainan, hau egiterakoan, dialektika bera aldatu egiten da. Ba dirudi hau egiterakoan sobietiar Estaduak ezarritako ordenua justifikatzeko dialektika bat asmatu duela eta dialektika izan ditez-

ken alde kritikalarri ta aurrelari guztiak baztertu nahi izan dituela. Sobietiar marxismoa litzake ezarritako ordenuaren interesean dialektikaren «geldiera», ideologia litzake benetakozko sozialismoaren geldieraren ondorioa.

### 8.—*Batetik bestera*

Sobieten Batasuneko politikagintza guztia sozialismotik komunismora pasatzeko zuzendua dago. Eta, sobietarrek diotenez, hori egiteko oinharriak jarriak daude. Baina pauso hori eman ahal izateko derrigorrezkoa da eboluzio «normala» izatea, hau da, Estatu sozialista ta kapitalisten artean gerlarik ez izatea. Stalinen azken iritziak, naiz eta Alderdiaren XX-gn. Biltzarrean bere jipoi hartu, neurri handi batean oraingo buruzagia dira. Azken iritzi hoietan («Sozialismoaren ekonomia arazoak ESSB-en» liburuan) Stalinek Estatu sozialista ta inperialisten arteko gerla ez zirela baztertu ezinokoak zion. Esan dugunez, sobietiar Estaduak sozialismotik komunismorainoko pausoa eman ahal izateko giro «normala» behar du. Honek zera esan nahi du: sobietarren eta kapitalisten artean zuzenki gerlarik ez izatea batetik eta inperialisten arteko etsaigoa ta borroka gero ta latzagoa izatea bestetik.

Leninen azken urteetan hasitako politikaren jarraipena da. Politika honek kapitalismoaren estabilizazioa kontuan izanik jokatzen zuen. Sobietarrek uste dutenez sobietiar Estadua indartzearekin sobietarren eta kapitalisten arteko gerla galerazten dute. Eta gerla galarazte honek inperialisten arteko etsaigoekin batera posible egingo du erreboluzioa. Baina sobietiar Estadua indartzeak berak uxatzen ditu inperialisten arteko etsaigoak.

Inperialisten arteko etsaigo hoiekin kontatzen dutelako Sobieten Batasunean barne politikak menderatzen du atzherri politika. Barne politikaren funtzioan jartzen da atzherrikoa. Sobietiar Estadua hazikera da xederik nausiena. Horrexegatik prest daude edozein prezio pagatzera gerla uxatzeko. Izan ere sozialismotik komunis-

mora pasa ahal izateko basia (ekonomia, produktibitatea) sendotu egin behar da.

Sobietiar Estaduan ere ba dira kontradizioak indar produzitzaileak produzioko erlazioen gonbarazioan aurreratuta daudelako. Ez dago egokitasunik. Bainan desegokitasun hau gizarte kapitalistetan antagonikoa den bitartean sozialistetan ez da antagonikoa. Sobietiar Estaduak —eta honen izaera lehenago azaldu dugu— berak autsi lezake desegokitasun hori. Horregatik sozialismotik kapitalismora pasatzea administrazio bidez egingo da. Ez dira ahalduko ta desegingo hortarako Estadua ta administrazioa. Pauso hori poliki poliki emango da.

1961-gneko. Programak zionez, 1961-1970 epean Sobieten Bata-suncan produzitutakoa, bizilagun bakoitzaren proportzioan, Estadu Batuetan baino handiagoa izango zen. 1971-1980 epean, komunismoaren basi materiala ta teknikoak altxako zen. Eta honela, Estadua eta administrazioaren zuzenpean, helduko da sobietiar Estadua komunismora.

Marxek eta Engelsek alderdi sozialistei «gizartea» ta «herri interesa» gizabanakoaren gaindik jasotzeko arriskua zeinalatu zieten. 1961-gneko. Programak ez du arrisku hori ebitatu.

Liberazioa administraziopean, sozialismogintza errepresiopean, kontradizio hauek sobietiar xistima sozialaren dinamika ber bera kontraipilatzen dute. Sozialismogintza, beraz, bulegokraziaren menpean. Bainan ez dago hor kakoa. Arazoa zera da, bulegokraziaren eustaille diren ekonomi ta politika erlazio zapaltzaileak sobietiar Estadua xede orokarrenen eta sustraitsuenen kontra ba ote dijoazten edo ez. Sobietiar marxismoaz egiten dugun analisisa zuzena baldin bada, erantzuna baiezkoa besterik ezin izan diteke.

Esan den bezala, sobietiar Estaduak ez du aurea hartuko inperialisten arteko etsaigoa lehertzen ez bada. Sobietarren aldetikako politika «gogor» batek etsaigo honen lehertzea urrundu egiten du ta kapitalismoaren aurrerapena sobietarrentzat heldu ezina bihurtu. Horregatik nazioarteko bake iraunkor batek bakarrik babestu lezake sobietiar gizartearen barne-desarrolloa. Era hontara bakarrik

pasa diteke nausitasuna borroka militar eta politikotik ekonomia-  
ren borrokara, eta baita ere bulegokrazia stalinista astintzea.  
Hori guztia egin ahal izateko derrigorrezkoa da industriatzearen  
mail handi batera heltzea. Mail hau zenbait alorretan ardietsia dela  
Sobieten Batasunean ezin uka diteke. Errealitate honek esplikatu  
dezake azken urte hauetako sobietiar xistimaren liberazio gisa ho-  
ri. Baina Ungariako gertaerak (irakurtzen ari geran liburua Txe-  
koslobakiako inbasioa baino urte batzuek lehenago idatzia dago)  
liberalizazio honen mugak garbi agertzen dituzte. Izan ere, Stalinen  
garaian bezala, sozialismotik komunismora pasatzeak ez du esan  
nahi Estaduaren ahultzea ta ezerezte. Estaduak hain indartsu ja-  
rraituko du. Izen ere gertaerak eta errealitateak gero ta prolema  
sakonagoak planteatzen dituzte. Hoiak agintearen sendotzea dakar-  
kite ondorioztat. Xistima leuntzeak, gogortzeak bezala, kontrol pla-  
nifikatu bat eskatzen du.

Dudarik gabe, libertatearuntz, kantitateari buruz, aurrerapenak egin  
dezazke, baina aurrerapen hoiak ez dira kalitatearenak izatera iri-  
txiko. Marxen eta Engelsen iritzian komunismoaren helburua «la-  
na ezerezte» zen, sobietiar marxismoan berriz gizon guziak gizar-  
te komunistean langileak izango dira.

Ekonomia ta industriatzea gehiagotu ta indartuko dira. Baina  
Marxek berak zion teknika neutroa zela. Makina berriak sosialis-  
mogintzarako edo kapitalismogintzarako erabili ditezke. Hau esa-  
tea kapitalismo helduak eta sozialismoak bati tekniko berdina du-  
tela esatea da. Horregatik esan diteke elkar ukatu nahi diren bi  
gizarte xistimak, gure egunetan aurrerapen teknikoek duten joera  
jenerala agertzen dutela: teknika zapaltetarako tresan lez erabiltzea  
dela.

### 9.—Mendebaleko etika eta sobietiar etika: bien arteko erlazioa

Orain arte esandakoetatik ikusten da borrokan dabilzan bi xisti-  
mek joera berdintsua azaltzen dutela: ba dirudi erabateko indus-  
triatzeak Mendebaleko ta Eguzkialdeko joerak elkartaritzen ditue-

la. Teknikaren efikaziak kulturaren eta politikaren erdikoitzea ta koordinatzea ekarri du bi alderdi hoietan. Mendebalean joera honek humanismo liberalaren etika usteldu du. Hala ere balioen xistima gorde egin da, naiz eta errealitateak gero ta gehiago gezurtatu xistima hori. Sobietiar Estaduan, erabateko industrietza etika liberalarekin ezin egokitu zitekean giroan egin da: ordu ezkeroztik Estadu erreboluzioari horrek bere baliogo xistima propioa jaso du. Hala ere gure garaiko erabateko industrietzeak, bere teknika ta lan metodoarekin bi alde hoiere artean berdintasun bat sor erazten du. Berdintasun honek mendebaleko etikaren eta sobietiar etikaren arteko oposizio abstraktoa baztertzer ta dudan jartzera bultzatzen gaitu.

Erdikoitasuna ta koordinazioa ez dira beraz libertatean eta gizatasunean egindako aurrerapenaren etsaiak. Are gehiago, XIX-gneko marxista ta marxista ez diren pentsalariak ezertan ados baldin badira industrietza aurrerapenaren derrigorrezko oinharria dela esatean da. Protesta ez dute egingo industrietzeagatik, baizik eta honen *antolaketa politikoagatik*. Industrietzearen antolaketa politikoak aurrerapenarentzat laguntzaile edo zapaltzaile izan ditek.

Bainan industriaren antolaketak ez du besterik gabe sobietiar etikaren muina esplikatzen eta horrexegatik ere ez honek mendebaleko etikarekin duen erlazioa. Bi etiken arteko erlazioa ikusteko lehendabizi bi etikak gonbaratuko ditugu. Gonbarazio honek bi etikak naiko homogeneidade ba dutela suposatzen du. Sobietarren etikaz hori suposatzea erraza baldin badirudi ez da berdin gertatzen mendebalekoarekin. Hala etika hortan jeneralizatu ditezkean puntu orokar batzuek aurki ditzazkegu. Hauek dira:

- 1.—Libertatea da etika honen ezaugarririk handiena. Gizonak ezarritako halabeharretatik aske izan behar du zerbaiterako libro izan nahi badu.
- 2.—Libertate honek *arau etiko orokarki obligatzaileak* legezkatzen ditu.
- 3.—Gizabanakoaren legezko helburu etikoak bere honen osaketa



onena adierazten dutenak dira. Baina gizabanakoaren osaketa hori bi arauen mendean dago.

Hauek dira: a) kristau etikaren edo bere laiotze humanistaren arau orokarrak; b) kolektibitate sozial eta politikoaren arau zehatzagoak.

4.—Bi arau mota hauek zerean finkatzen dira: a) Jainkoarengan eta edo «giza izaeran»; b) kolektibitate sozial eta politikoaren iraupenarengan eta hobetzearengan.

5.—Hala ere gizabanakoaren moralaren eta moral kolektiboaren artean ez dagoela fundametzuko etsaigorik uste da.

Etika hau, neurri handi batean, kristau tradizioan sustraitzen da. Kristau etikak «oposiziokoa» izateari utzi dion ezkeroztik, eta Estaduak berea egin duen ezkeroztik, filosofi moralek ezarritako zibilizazioa derrigorrean gizonaren ahalmenekin borrokan dela dioten heterodoxiak kondenatu ditu.

Hala ere beti izan dira filosofi «heretikoak». Denak kalitatez berria izan ditekean kondairaren hautamen bat egin dute. Kondaira berri honek ezarritako erakundeak desegin beharko ditu gizonak bere benetako ahalmenak bete ta zabaldu ahal izateko. Baita ere, heterodoxia guzti hoiek, ezarritako gizartearen «ertzean» dauden behartsuen eta zenbait pentsalarien sinpatia bereganatzen dute. Heterodoxia hauek proposatzen duten moralak ezarritakoaren ukazioa da, baina, eta berean, bere hoiek eskeintzen dutela moral jatorra diote. Katolikotasunaren heterodoxiak kristautasunaren iturrira zi-joaztela ta benetako kristautasuna zekarkitela esan dute beti. XVI-gn. mendeko materialista ta eszeptiko handiek, Argien mendeko ezker-estremoa eta honen ondorengo diren sozialista ta komunistek, bere filosofi «subversiboa», «iraultzailea» humanismoaren idealari erreferentzia eginaz justifikatzen dute. Marxismoak ere berdin. Marxek eta Engelsek beti esan dute humanista handien jarraitzaileak direla. Hau kontuan hartzen badugu sobietiar etikaren eta mendebaleko etikaren arteko erlazio historikoa ikusi hal izango dugu.

Izan ere sobietiar etikak moral nausiago bat dakarkila dio. Pretensio hori marxismoaren eginkizun historikoan finkatzen da. Teoria honek ez du moral propiorik, baina humanismoaren etikoa *betetzen* duena dela demostratu nahi du. Horregatik, sobietiar filosofiaren sustrai historikoak ez dira Mendebalarentzat arrotz egiten (naiz eta Sobieten Batasunaren interesen neurrian jarriak izan).

Ba da tesia bat marxismoak humanismoaren etika kapitalismoaren deformaziotik gorde duela diona. Tesia honek hau dio, laburki:

Mendebalean, herriak kristau-humanista etikaren espirituan ezituak izan dira. Bere harreman sakonenak espiritu honen konformitatean behar dutela uste izan da. Baina, ezarritako erakundeek ezinezkoa egiten dute hori egiztatzea, injustiziaren, zapalketaren eta erreprezioaren eustailak direlako. Mendebaleko zibilizazioak diona bete ahal izateko desegin egin beharko dira beraz.

Sobietiar etikak mendebaleko etikan bakanduak dauden ideiak eta egiteak bateratzeko pretensioa du, honen balio moralak eta balio praktikoak bat egin nahi dituela dio. Hau hobeto aditu ahal izateko, libertatearen eta segurantzaren arteko erlazioa ikusi behar dugu. Libertateak arriskua adierazten du eta horregatik segurantza mugatzen du. Bien artean, era horatar, sortzen den etsaigoa segurantza sendotuaz eta libertatea ahulduaz konpontzen da, gehienetan, gaur eguneko gizarteetan. Hori da joera, gutxienez. Baina mendebaleko etikaren tradizio ideologiko guztia joera honen kontra agertzen da; eta joera hau premiak eraginda balio bileralen kontra sendotzen denean, ideologiaren eta errealtatearen arteko diferentzia oraindik ere argiagoa egiten du. Kalterik gabe, ordea, sobietarren artean, libertate tradizionalak bazter ditezke, sobietiar marxismoaren iritzian segurantza ekonomikoan finkatzen ez diren bitartean, erabat ideologikoak direlako. Beharren menpetik askatzen ez diren bitartean behinepein. Askatasun hau, Marxek dionez, gizonak bere lanaren morrontza austen ez duen bitartean ez da helduko. Izan ere «ekonomia», hau da, beharraren erresuma ezin ditekete behinere izan libertatearen erresuma.

10.—*Etika hura: baliogoa politikatzea*

Jabego pribatua ez bada ia gehiago gizabanakoa afirmatzeko bidea, nere «ni»-aren adierazlea beste «ni»-en kontra, orduan pertsona pribatuaren alor guztia, betidanik mendebalean jabego pribatuaren balioez betea, politikoa egiten da, eta lege honen bitartez gizartearen aferran bihurtzen da. Mendebaleko etikarentzat politikatze honen ondorioak penagarriak dira.

Pribatuaren «gizarteratzearekin», libertatearen muinari dagokionez, gizabanakoa pertsona pribatua izatetik gizartekoa izatera iragaiten da. Era hontara sobietiar morala zeregin kolektibo baten funtzioan jaio da. Sobietiar etika instrumentala izatera pasa da. Hala ere, ez da tresna hutsa izango etika hori; izan ere historiaren egoera berri batean jaio da. Komunismoaren moralaren funtzioa Leninek 1920-gn. urrilaren 2-an Errusiako Gazteri Komunistaren III-gn. Biltzar Nazionalen definitu zuen. Hauek izan ziren pundurik nau-sienak:

1.—Komunismoarena, moral tradizionalaren ukazioa da. Beste hitzetan esateko, erlijioan edo planteamendu idealistetan finkatzen diren moralak baztertzen ditu.

2.—Erabat proletalgoaren klase borrokaren interesen mendean izango den moral «komunista» berri bat afirmatzen da. Honekin ez da esan nahi «burges» balio etikoak ez direla onhartu behar. Eskatzen den gauza bakarra zera da: klase borrokaren epe bateko premiekin bat etortzea burges balio hoiek.

Hoiek, behar bada, alde negatiboak dira. Positiboki «komunista»-rentzat, moral guzia zerean finkatzen da: disziplina solidario batean eta esplotatzailen kontrako proletalgoaren borrokan». Leninen definizioan, garbi dago, klaseen borrokatik at ez dago balio etikorik.

Sobietiar etikaren alde instrumentala izan da mendebaleko kritikaren aldetik erasoaldi gogorrenak jasan dituen, «Helburuak medioak justifikatzen ditu». Baina sobietiar etika utilitarismoa baino zerbait gehiago da.

Ez dugu ahaztu behar sobietiar gizartearen ezaguarri seinalagarriak bi direla:

1.—Batetik, bere antolakerak libertatearentzat baldintza sustraituenak jaso dituela dio bere buruaz.

2.—Bestetik, «atzerapen ekonomikoaren» eta «kapitalisten etsaigoaren» zirkunstantziegatik, libertatearentzat ezarrita dauden baldintza hoiek ezin dezaioteke gizabanakoari behar haineko utilitaterik eman.

Libertaterako baldintzak ez dira honela aurre-baldintzak baizik; baldintza hoiek izateratzea oraindik, libre ez diren gizabanakoaren ahaleginen ondorioa izango da.

Sobietiar gizartearen bi alde hauen arteko egon-ezinak ematen dio bertako moralari dinamika berezi bat.

Libertatearen baldintzak gaurkoz bete gabeak direlako, du hainbeste indarra moral hortan gerokoak. Izan ere, geroko honek justifikatzen ditu gaurko lanak eta nekeak. Eta hortan sobietiar moralak mendebaleko moralaren antz handia du: bai baidirudi geroko honek sobietiar moralean traszendentziak edo idealismoak mendebaleko moralean duten zeregin ber bera duela. Gizonaren azken atsedena ez dago, mendebalean bezala, barne atsedean edo beste mundu batean, oraingo gizartearen «epe berri» batean baizik. Eta hone-lako ikusmolde batean egia ez da fede batean finkatzen, sobietarren iritzian noski, baizik eta arrazoiean eta analisi zientifiko batean, beste hitzetan esateko, premietan.

Ez dago ukatzerik arrazoiketa honek xistima errepresibo bat justifikatzeko balio izan duela. Morala, premiaren izenean, politikatu egin da eta errepresioaren serbitzuan jarri.

Etika politikatzea mendebaleko filosofiaren hasieran eta finean ikusten da. Platonengan Hegelengan bezala, etikaren gaintasuna *berri arazoaren (res publica)*, Estaduaren gaintasunak menderatzen du. Aipatutako bi hoietan ondorioa ez da pragmatismoa edo erlatibismoa, absolutismoa baizik. Moralaren prolematika ez dago gizabanakoaren eta Estaduaren arteko kontra-jartzean, edo bi moral differenteen arteko etsaigoan, Estaduaren *baitan* izan ditekenez jokabi-

de moral edo inmorealean baizik. Ez da Sobieten Batasuna morala politikatzen hasi dena, mendebalekoak izan dira hori aspaldidanik egiten hasitakoak.

Giza balioek, eta batez ere libertatea, errealitatean izateratzen ez diren bitartean, bere muina errealitate bihur erazi dezateken baldintzen mendean irauten dute. Errealitate egite hau politikoa da, gizarte guzian jokoan jartzen duelako, ta ez gizabanako bakarra. Libertatea izateratzeko bi gauza behar direla kontuan izan behar da: ezarritako gizartea aldatu behar dela eta aldaketa hau une hortako baldintza historikoen mendean dagoela.

Hau kontuan hartzen baldin badugu garbi ikusiko dugu bi xistimek —mendebalekoa ta eguzkialdekoa— naiz eta filosofi desberdinekoak izan, *libertatea probisionalki premi historikoaren eta politikoaren mendean kausitzen dutela.*

Horregatik sobietarrentzat inportantzia handiago du burges etikari borroka egitea, biak zenbait gauzetan berdinak direla diruditelako. Sobietarren filosofi moralaren balio handienak ikusita mendebalekoen berdinak direla dirudite: erresponsabilitatea, abertzaletasuna, lanean zaletasuna, urkoari kalte ez egitea, guzien ona kontuan izatea.

1961-gn. Programan azaldutako komunista moralak industrietzaeren etikaren arau ezagunenak agertzen ditu:

—lanaren nausitasuna.

—Herriaren onaren alde bakoitzak izardia atera beharra.

—eginkizun sozialaren kontzientzia handi bat.

—honestitatea, garbitasuna, xinpletasuna.

Arau hauek (ez dira aurrelariak) ez dute agertzen moral berrikorik ezer. Gehiago oraindik, komunismorako pausoa ematerako behar den «gizon berria» definitzerakoan gauza beldurgarriagoak ezagutzen dira: gizon berri honek bere baitan «aberastasun espirituala, garbitasun morala ta perfekzio fisikoa» bilduko ditu.

Sobietiar moralak kapitalismoaren moral idealistarekin antz han-

diagoa du. Produktibitateari buruz argi ageri da hori. Bainan gainontzeko gauza guzietan ere bai.

*Herri arazoa* bertako diren gizabanakoen *arazoa* ez den bitartean, *herri arazoa* errepresiboa izango da.

\* \* \*

Hau da sobietiar marxismoaz M.-k diona. Laburpen bat da. Laburpen hontan, neronek nahi ez izanda ere, neretik asko jarriko nuen noski. Laburpena egiterakoan hautamenak egin behar izaten dira. Hautamenak egiterakoan —zer den inportanteena eta zer ez erabakitzerakoan— bakoitzaren kriterioak agintzen du. Laburtzea ta irakurtzea interpretazio bat egitea da besterik gabe. Hori da horri hauetan azaldu dena. Orain, gai hau pentsatu egin nahi nuke bainan hori egitea beste baterako utzi beharko dut.

*Rikardo Arregi*

# NOTA LABURRAK

## LOREILA



«Une société incapable de se penser»,  
«Loreila» zer izen polita gure «maiatza»-rentzat, deraut  
erran, lapurtar adiskide batek.

«Loreila» edo maiatza orai dugu berriz. «Berriz» diot,  
hura bera baiginuen orai duela urtea. Pariseko «loreila». Gu-  
re bazter guziaz inarrosi zuen «loreila».

Nehork baino hobeki orduko gertakariak analizatu dituen  
soziologo batek, «Michel de Certeau» jesuitak (ikus bere «La prise de la pa-  
role. Pour une nouvelle culture». Desclée edit.). Kondatu ditu oraikotz 70 li-  
buru frantzesez agertu direnak, urtea barne, «Loreil» aipatu hartaz.

Idazle guzien arabera «Loreilak» erakutsi derauku gure zango peko lurra  
lerratu eta lehertu egin zitzaikula. Baina nork daki xuxen non den gertakari  
hori gertatu? Zein diren egiazki hunkiak eta joak diren baloreak?

Ezen ez da bakarrik burasoen larderia edo nausien lotsa edo gobernua-  
ren boterea, hots, goiko indar guziaz, lur-ikara hunek ikaratua. Baina kultura  
oso osoa da iraulia eta ukatua edo bederen eztabaidan eroria.

Marx-ek «alienazioa», Sartre-k «la mauvaise foi» deitzen zuen gaitz izi-  
garri hark ez ote dituen, gure mende huntan, bazter guziaz kotsatu, bapatean  
jauzi da orotan beldurra. Gure gaurko mende hunek, gure sozietate hunek,  
iduri luke ez dakiela gehiago batere bere buruaz zer erran, ez zer asma.

Beldurraren beldurrak erakarri zituen behin asko, ardiak bezala, Artzal-  
naren itzalerat. Beldurrak ordea ez dezake beti iraun. Beldurra urruntzearekin  
ager ditake zentzua.

Lehen ondikotz hersturan gertatu diren indar, balore, jakitate, botere  
nausi guziek leku izpi bat utz diezoten, orai arte ehortziak zauzkaten gure  
kultura xehe, xume, apal hunen botz, eta deiari, loreileko amantsetan erortzea  
ez balitz.

Hortakotz guhauri dago lehenik burua altxatzea.

P. X.

## MIKEL LASA EDO AMERIKA DESKUBRITU EZ DUAN BAT



M. Lasak azkeneko **Jakin**-en («Euskal kulturaren kinka larria») Arestiren jarraitzaileeri egiten digun kritikarekin ezin esan diteke Amerika deskubritu duanik. Zenbat aldiz ez gara gure artean gai horri buruz mintza izan —M. Lasa berarekin ere egin izan dut behin baino gehiagotan— Euskal eskritoreen «dandysme moderene» falta sumatzeko ez da oso bizkorra izan beharrik; «Litote»-a, gutxi esan gehiago ententitu arazteko eta parabola erabiltzen ez jakitea, reserba ta diskrezio falta, hots, dotoretasun falta, sumatu ahal baino, muturreko bat bezala ateratzen dela gure izkribuen lerro bakoitzetik ezin ukatu. M. Lasaren kritikari ezin kendu dezaiokegu ba hitz bat ere eta erantsi agian bai, bat baino gehiago gainera, baina hala ere zera esan nahi nuke erreza dela behar lirake, litzake, luke eta besteak konjugatzea. Euskal eskritoreek hobeagoak behar luteke izan, irakurleek intelektualagoak, guziek ugariagoak. Bai, eta nola. Euskal unibersitatearen bidez agian?

Bainan guzi hau esatea denbora galtzea besterik ez da nire aldetik, ados bainago M. Lasaren kritikarekin eta ikusten baidut gainera ez Aresti ez Arestistak eta ezta M. Lasa bera ere ez garela kritika hortatik salbatzen. Alferrikakoak ba nire hitzak, baina nolana ere permititu lerro batzuek gehiago.

Lehenik, esan behar dut, marjinalismoa dela gure birtuterik handiena, euskal liburu baten tirada esturiatu genuanean, espezializatzeke eta profesionalizatzeke ametsak hautsi zitzaizkigun. Beste zenbait «gauzatxo» konpondu baino lehen hortaz pentsatzea ere adoleszentsismoa ez ezik infantilismoa deritzait.

Urrenik kritika hori, ideiak buruan bueltak emanaz zahartu egiten dira nunbait, pasatu egin direla apurtxo bat behintzat, adoleszentsismoagatik, intimismo eskas bategatik, tremendismoagatik eta beste bizpahiru gaitz konprenigarritik (konprenigarri: hogeit urte genituen gehien eskribatzen genuen garaiean) libratu baigara, gure Aita Arestik gureetako bost edo sei liburu argitaratzeko sosa lortzean demostratuko den bezala.

Eta azkenik, ez nitzakela, ni behintzat, esate baterako Cuba-ko Erreboluzioaren ondorioen kritika bat askorek entzuteko eran egiten ausartuko, beste askoren ekintzen ondorioak merezi baidituzte gure kritikatzeko kapazitatearen zatzateko guziek. Zeren eta kritika batzuek, egizkorrak izanik ere, inteligentek ez badira, hau da, segun nori, noiz, nun eta nola izan izan baiditezke kontrarreboluzionarioak. Eta M. Lasak ez du noski erreakzionario bezala azaldu nahiko.

Eta azken urrena: Promesa bat. Ni baino gazteagoen kritika inoiz ere ez egiteko hitza ematen dut.

R. S.



LURRALDE ANTOLAKIZUNA



Gizaekonomiku edo gizapolitiku jomuga batzuk prestatze-ko edo egiteko oinarriei buruz mintzatzen geranean, maiz aipatzen dugu «infraestruturura» hitza. Beste batzuetan infra-kenduta estrukturaz soilki jarduntzen dugu.

Bada estruktura hori, infra-rekin edo gabe, «ex novo» egin beharrean gaude gure lurralde antolakizunean (ordenación territorial). Asieratik aldatu beharrean gaudela uste dut, gure probintzien izakera ta mugak, kasu batzuetan, eta gure pentsakerak infra-estruturura berri hofekin ohitu beharko du. Gure herria giza egoeran aldatzen (edo-ta obeto, iraultzen) badao, edo joan behar badu, lurralde eraketan ere batera joango da.

Zeren giza eta lege arazoetan, askotan, igarri gabe, igarotzen du infra-estruturura batek, lurraldeak. Eta hemen gaude, gu, betiko sei «probin-tziekin», Araba, Bizkai eta Gipuzkoarekin; Nafarroako erresuma gure lurralde-deren erdiarekin; Zuberoa aurrera atera ezindakoarekin; Be-Nafarroa, Nafarroarekin sartu nahian, historizismu itsu batekin, Lapurdirekin mendeetan, ekonomian eta politikan urteak igaro ez balira bezela.

Arregi adiskideak aaltzen duan jakobinismuaren alde nago, bi arrazoia-kaitik. Bata gure Herriaren batasunagaitik, eta hori kalte handia egiten dio gaurko lurralde antolakizunak. Ba dakigu gaurkoz ez dagoala aldatzerik, bai-na bai beste eskema batzuetan pentsatzen asi behar dugula. Bigarren lurraldearen, ta kasu hontan gure Herriaren zatiketak, histori-planteamendue-tatik kanpo, ekonomia, administrazioa, urbanizazioa, bide-infraestruturura, eta lurra... kontuan euki behar ditu, eta hau ez diot... histori-zalea ez naizela-ko.

Gure Herriaren une larri eta garratz hontan huskeriak dira Gipuzkoa, Bizkai eta abar... (eta neuk ere, jakobinistak izan behar dugula diot), eta ge-ro... ikusi, gure Herriaren serbitzurako ze lurralde antolakizun oberena dan, seguru asko ez oraingoa.

Pixkat, ez guztiz, gaitik kanpo, deitxo bat «Zeruko Argia», «Herria», «Jakin» eta beste aldizkarietako politika-kronistei: Ez ahalko dugu termino-logi batu eta konkretuago bat erabili denok? Ba dakit, hontan bi behintzat lanean ari zeratena, baina prisa gehiagotxo dugula uste dut. Lurralde auzi hontan ikusten dut «Baionako Idazkaritzako» erabakietan «region»: herrialde autatu zen euskal bersiotzat ta «comarca», eskualde. Orain Frantziako «regionalization» dela-ta hitz hori «region» adierazotzeko erabiltzen da. Bestalde herrialde, «zona» adierazotzeko usatzen da kasu batzuetan. «Kantonamen-du» «Herriak» erabiltzen du, komarkatzat, baina hori frantzes administrazio hitz bat danetik ez da aplikable hemen, eta euskera batuan gutxiago. Gure Historia, eta gaurko esigentziak ikusita, eta batez ere hizkuntzaren estruk-turalismoa, lan hau ainbat azkarren bururatu behar dugu. Ez derizkiozute?

J. L. L.

## GRAMATIKA ETA EUSKAL KULTURA



Maizago erabili behar omen litzake, gaur, indikatibu-kera inperatibu-kera baino.

Irakurri berria dut haxe eta ez dakit nun. Berdin da.

Esanai osoz jabetzeko, gramatika bat aztertu nahi izan dut. Fernando Mendizabalarenera noa, aditzari dagokion zaitira.

Indikatibua eta inperatibua, biak dira kerak, moduak; gramatika-apurra ezagutzea aski da, horrenbeste jakiteko. Beraz, aditzaren jarduna **nola** zertzen dan adierazten dute biek.

Bolara luxe xamar batean ez al da inperatibu-kera nagusi izan munduan? Gauzak aginduz egin ohi ziran: egin zak hori! Ez zak egin holakorik! Bestea- ren erantzuna obediencia zan, aginduari men eginaz. Aditz-kera hori, inperatibua, asko landu da. Gizonaren eginkizuna eta jarduna ez al da, gehiegitan, agindu baten itxuran aditzera eman? Gehiegikeria honegatixe, gaur, krisi bat sortu da gizon berriaren konzientzian. Inperatibuak ez duala lehengo eraginik erakusten digute, uneoro, estudianteek. Eta estudiante ez diran munduko beste gazteak ere. Eta gazte ez diran beste askok ere.

Ez gehiegi eta ez gutxiegi, euskal kulturak ez du inperatibu-kerarik eza- gutu. Zorionez? Ez nago hortan, ezagutu balu nahiago nuke. Eta hori, inperatibu-kera eragikorra dalako, efikazia bat ba dakarrelako. Eta guk eragikortasun hau ez dugu izan, hein zabal batean, —ene ustez— inperatibua erabiltzerik ez dugulako izan, eta, okerrera, gaur ere ez daukagu. Eta, hortara, Euskaltzaindiak euskera literarioaren batasunerako erabakiak ez ditu agindu. Aholkatu egin ditu «begi onez ikusi». Total, dioguna: efikaziari lurra kentzen ari gerala...

Agindu-kera honek, gainera, estrutura bat suposatzen du. «Agindu-obe- ditu» bikoteak sortzen duan elkartasunezko estrutura, bestalde. Eta gure kulturak ez du estrutura hori izan, esan genuenez ofizialtasuna ukatu, era- kundeak ukatu egiten ditualako.

Euskal kultura, horregatik, borondatezko eginkizun bat izan da, inoren agindurik gabe egin behar zana. Eta horregatixe, agian, egin ez dana. «Egi- teko hutsa», edo hutsaren urrengoa. Hau frogatzea ez da nekeza.

Norbaitek erantzungo dit, esandakoagatik, gizonaren libertatean ez du- dala sinismenik. Ba dut, nola ez, eta hain handia ezen uste dut «agindu-obe- ditu» bikoteak berak ez duala derrior gizon horren libertatea ukatzen. Urru- tirago noa, gainera: guk gaurregun, euskal kulturari, egiten ditugun lan asko taldeka egiten ditugu, eta talde hoietan «grupo de presión» dalako hori ez da falta. Eta hau agindu-kera bat danik nork honeski ukatu? Eta halare gizo- naren libertatean sinesten dut. Eta sinestuko dut, nahiz-eta gizon horre- xen alferkeria gertutik ezagutu.

Dena dela, aitor dezagun inperatibu-kera maizago sar balitz euskal kul- turari, gaur indikatibu-kera jokatzeko errezagoa litzaugukeala. Eta hala eta gu- ziz ere, ez naiz inperatibu-keraren aldekoa; arrisku gehiegi ikusten diot, eta pittin bat itsua dala esango nuke. Indikatibu-kera erabili behar dugu, horixe baietz! Izan ere, indikatibuak beti adierazten du gertaera bat, izan dana,

dana, edo izango dana. Baina beti gertaera bat. Gertatuzkoa eta benetakoa bezala adierazten du aditzaren jarduna indikatibuak. Egitan, honek salba lezake euskal kultura.

Gaur zein kera nabarmentzen dan euskal kulturari?

Neretzako bi. Eta biak garbi.


Bata, indikatibua. Gaur, euskal kulturak mugimenduarekin erakusten du (ikus nahi duanarentzako) ba dabilela. Eta euskal kulturazko planteamendu asko «gertatuzko eta benetakoak» dira.

Subjuntibua da bestea. Ez dugu orainartean, ikusi. Subjuntibuak, esango nuke, aipaturiko bi kera holer tartea egiten du. Subjuntibuak, alegia, aditzaren jarduna, **jomuga, helburu, erregu, irriki** bizi baten itxuran adierazten du. Ez al da hau nagusi euskal kulturari?

JAKIN 34-eko editoriala ikusiaz, baietzean nago.

J. M. T.

### KONFORMAGAITZEN KONFORMISMOA



Esango al dut? Bai, ba da konformagaitzen konformismo bat. Ba da protestalarien eskolastizismo bat. Erru hortan eror nindekeala, eta zenbaitetan erori naizela ere, aitortzen dut. Masokismoaren beldurrik ez banu, nere buruaren autokritika etengabe egiten jardungo nintzake. Baina, zer demontre, zergatik erreztu behar diegu lana gure kritikalariei, aurrez aurretik hain erreza duten lan hori? Eskolastizismoa, neurri handi

batean gutxienez, besteek esandakoa birresatea da. Horregatik, kongormagaitzentzat jatorrasunik-eza, originalitaterik-eza hobeto, da arriskurik handiena.

Eta hemen, erretolikaren erregiak auste baldin bada ere, «jatorra» hitzari parentesis idiki bat. Ba dut gogoia egunean batean —geroko geroa noski— hitz honen usuaren analisisan sartzea. Ba da nunbait —inoiz «euskera euskerari» buruz nion bezala— jatorrasunaren patentea. Jakina da: «jatorra zirudin, baina zer pena!». Jatorrismoaren etiketapen analisisarentzat interesantea den zerbait estaltzen dela uste dut. Aitor dezadan, aitorketa sena esnatu zaidanez, jatorrismo hori ez dela nere debozioko santua.

Eta parentesis idiki honen ondorenean itzuli gaitezen erretolikaren erregletara.

Honela dio Lafitte jaunak: «Oraino ere bertzeen ondotik badabilta, dena itzultzen, laburpen eta antolamendu, sekulan bezain morroin-konformista, eredu-nausiak aldatu zaizkon arren». Jatorrasuna falta zaigu, beraz.

Euskal idazleok, ikusten denez, munduko idazleen artean arraza espezial batekoak izateko obligazioa dugu. Batzuek heldutasunera adoleszentsiatik pasa gabe irixtea nahiko luteke. Besteek, besteen ondotik ez ibiltzea. Hori, euskalgintzaren teoria ta praxia bi egitea da. Ta denok dakigu praxiarik gabeko teoria ideologia dela, hots, ahalezinak sortzen duen iheskeria. «Lukelitzake-lariek» hori errezegi ahazten dute.

Nere lanei eta nere adiskideek egindakoei, begiratu bat ematen jardun naiz. Eta ikusi dut baietz, egiazkoak direla salatzen dizkiguten akats hoiek. Baina, hain kritika serioa egiten duten hoiek, guri inoiz salatu diguten manikeismoan erortzen dira. Ez dut uste honeski esan ditekeanik itzulpen hutsean gabiltzanik. Hori panfleto batean esatea, bego. Baina gauza objektibo bat bezela, ez. Gainera, bai al da pentsamendu jatorrik Euskal Herrian? Jesukristo Euskal Herrian jaio ez zen eskeroz, kristautasuna ere inportantziokoa da, ekarritakoa. Gero jatorru da, baina gero, denboraren poderioan.

Izan ere, triste da gure egoera. Europa helduan eta aurreratuan bizi ez geranez, Herri hoietan kausitzen diren euskal unibersitarioen lezioak eta kritikak jaso behar ditugu, «europarrak» jatorrasunik ez dugulako, benetako «europarrak» bezala gauzak egiten ez dakigulako, marjinalak geralako. Bestetik, hemengo «jatorrek», itotzen ari geran gela honen lehioa idiki nahia salatzen digute, jatorrasuna galtzen omen dugu ta.

Konformagaitzen konformismoa? Zenbaitetan egia galanta. Gauzak birresan, euskeraz bederik ere, maizegi egiten dugu, zoritxarrez. Bueno, puntu honek mami gehiegi duenez, beste baterako uzten dut. (Beste egiteko bat!).

Saltsan gabiltzanok, Helvetia burgesetik eta bialtzen dizkiguten teorioren praxia ikusi nahi dugu. Behin bitartean ideologia, hots, ezinaren iheskeria direla pentsatzen segiko dugu.

R. A.

*Gaurko "Nota laburrak" idatzi dutenak, hauek dira:* Rikardo ARREGI, José Luis LIZUNDIA, Ramón SAIZARBITORIA, Joan Mari TORREALDAY, Piartes XARRITON.

# KRONIKAK

## TXEKOSLOBAKIA

### HIZKUNTZAREN PIZKUNDEAZ BI HITZ

«Orduan hasi nintzan ulertzen. Hiztegi-kontu huts bat ez dan zerbait izan behar zuten gizon haiek. (Abertzaleez ari da). Antzina-ko Bohemia-ri buruz egiten nituen ikasketek argitzen ninduten gehienik. Erreparatu nuenez eta hau ez nuen anartean sekulan hausnartu alemanera ez zan beti mintzatua izan Bohemia-n, gure egunetara bezela; txekotarren iragana txekotarra izan zala ikasi nuen; Hus, Zizka, Podiebrad-eko Jurgi, txekotar erregeak eta aiton-semeak, txekeraz mintzo zirala, eta ez alemaneraz. Gogoeta hauek ondorio huntara eramanez ninduten: ezina dala gure aberria eta gure herria maitatzea, ezagugarri dan gure hizkuntza maitatu eta landu gabe».

(Vaclav Tomek, istorilari eta Praga-ko Unibertsidade-ko Buruzagi, 1816-1905)

Jakina danez, Txekoslovakia ez da 1918-arte inoiz erresuma bakar bat izan: egun hauetantxe ospatzen dira, hain zuzen, askatasunaren ondoko berrogei-ta-hamar urteak.

Txekoslovakia-n bi hiriburu izan dira aspaldidanik nagusi: Praga eta Bratislaba. Ethniak eslabo-mordokoak dira (Polonia-ko edo Errusia-ko gehienak bezela).

Praga-ren inguruan Bohemia eta Morabia hazi dira, txekotar osteak beraz; eta Bratislaba-ren inguruan Eslobakia. Bohemia-Morabia eskualdeak mende asko pasa ditu Austria-ren menpean; eta, hau dala-ta, bere arriskua «germanitartzea» izan da. Berebat Eslobakia Hungria-ren menpean egon da luzaz; eta bere arriskua «magyartartzea» izan da, hungriatartzea. (Gauza bera gertatu zaie, jakina, serbitarrei eta kroazitarrei, galiziarrei eta portugesei, flamendarrei eta nerlandatarrei, ipar-aldeko eta hego-aldeko kurdotarrei, katalunarrei; eta... geuri, noski!)

Arrisku horiek ez dira arrisku huts egon: mamitu ere egin dira, Txekoslobakia zatituz. Silesia-ko eskualdea, berez eslaboa, ia osorik aleman egin da, eta Alemania-ko probintzia bihurtu. Lusazia-n, orobat, mende huntan bukatu da bertako hizkuntza; batez ere Hitler-en garaiean basaki zapaldua. Eta Ekialdeko Rutenia, azkenik, erdi eslobakiar erdi ukraniar, gaur U.R.S.S.en eskuetara pasa da.

Txekoslobakia-k, beraz, gaur bi parte ditu: Bohemia-Morabia bata («txekotar» herrialdea); eta Eslobakia bestea («eslobakiarra»). Beste aldakuntza asko bezela hau ere Mosku-k ez badu debekatzen, Urrila huntantxe Txekoslobakia Federazio bihurtu da; eta bi erresuma federatu eta bi gobernu izango ditu aurrerakoan: Praga-n bat, Bratislaba-n bestea. Bata eta bestea ethniaz oso antzekoak izanik ere, anaia bizkiak egiazki, Kondairan mende askotan zehar berezirik pasa ondoren, federazio gisa alkartzea erabaki dute. Ez zan hau Thomas Masaryk-en nahia...

Txekoslobakia-ren beheratzapena osoki aztertzea luzeegi litzake. Austria-ko inperioak azkenaldian zapalduta (nahiz luzaz autonomia izanik ere), Txekoslobakia Hogeita-Hamar Urteetako gerla gogorrek desegin zuen orain dala hiru mende. Txekoslobakia-ko herriak Erreforma hautaturik zeukan aspaldidanik (Joan Hus ez zan hereje huts bat, eta ez lehendabizikoa urte nahasi eta itxaropengarri haietan; Txekoslobakia-ko abertzaletasunaren aita baizik).

Biena-ko Gortea, Madrille-koaren kidea alde askotatik, katoliku egon zan. Erlijio-arazo hau ezagugarri, aurrerazaletasuna, txekotar abertzaletasuna eta Erreforma batetik; eta atzerakeria, Biena-ko inperialismoa eta katolikutasuna bestetik, Hogeita-Hamar Urteetako Gerlak desegin egin zuen Bohemia-Morabia; eta hunen hondamendia orduan hasi zan.

Bertako aiton-seeiei, aleman aiton-seeiak nagusitu zitzaizkien; bertako nekazariei lurrak kendu, eta germandar puntuzkoei eta Eliza-ri banatu zitzaizkien, horrez gainean egundoko zergak bertakoei ordainaraziz; txekera debekatua izan zan, eta alemanera hizkuntza ofizialtzat jarri: aiton-see berriek, burgesek, eta administrazioak, alemanera

erabiltzen zuten soilik gerla bukatu ezkeroztik. Txekera-zko libururik argitaratzerik ez zegoen, bestalde: Santuen bizitzak bakarrik zilegi, eta egutegiren bat... Besterik ezer ez. Nazio-literatura putzura abiatu zan, eta txekera atzera hasi.

Horrekin batera, jakina, gerlan parte hartuako askok, alde egin behar izan zuten Txekoslovakia-tik; eta, bata dala eta bestea dala, herriaren kopuruak %20 galdu zuen. Balbin abadea, hortara, nabarmendu egin zan 1680-ean, alemaneraz egin beharrean txekera idatziaz.

Herejiaren erauzi-beharra eragile (eta aitzekia!), hirietan eta basoan, Austria-ren zapalketa gero eta gogorrago egin zan. Aita Konias-ek gonbarazio baterako, oso harro esan ohi zuen berak bakarrik bere buruz 30.000 txekotar liburu erre zituela! Joan Hus, txekotarren eredu eta jarraigaria izanik, Elizak Joan Nepomuzeno santutu zuen handiro, hau hari nagusituko zitzaion itxaropenean. Alperrik halere: Joan Hus itsatsita zegoen Bohemia-n, eta itsatsita dago gaur ere Txekoslovakia-ko lurraldeetan, aberriaren salbatzaile.

XVIII-gn. mendean, Argien Filosofia bultzatzen hasi zalarik, unibertsalismoaren izenean proposatzen ziran aldaketak. Irakaskintzaren zabalera, esate baterako, berez zalantzarik gabe oso ona, «unibertsalismoa» zala-ta, alemaneraz egiten zan Praga-n. (Hunek ez gaitu mendrenik ere harritzen: Euskal Herria-n «unibertsalismoa» batzuk erderaz egin nahi izan duten bezelaxe, Txekoslovakia-n alemaneraz egin nahi zuten; Polonia-n errusieraz, Viet Nam-en frantsesez gure mendean, eta abar eta abar... «Unibertsalismo» hori garaieko inperioen zerbitzari agertu izan da beti).

Gauzak berrehun urtez hortan, XIX-garren mendean Txekoslovakia germanitartzen oso abiatua zan, zenbait eskualde eta gizarotan osoki obratua. Eta abertzaleek berek itxaropenik gabe lanegiten zuten. Palacky-k, hango kondairagile nagusiak, gure Moret edo Kanpion nafarren kideak, hau ohi zion etsirik: «Oso luzaz itxaropenik gabe bizi izan ginan: bi mende ezkeroztik alde batera utzitako literatura hura berriz piztuko zan itxaropenik ez genuen. Maitasunez hausnartzen genituen aspaldiko esku-izkribuak, baina itxaropenik gabe».

Are gehiago. XIX-garren mendeko hasieran abertzale mogimendua, Biena-ren kontrako herra hutsa da, ukabide hutsa, ethniazko sustrairik gabea: «Bohemia» hitza askotan dago ahoetan, baina alemaneraz, mal-koen artean; eta txekotartasunik ez da agiri. Gure Trueba-ren aroa da. Garai huni «bohemi-zale» deitu diote gero txekotarrek, ez baitzuen egiazko txekotar sendimendurik erroetan, politikazko «separatismo» hutsa baitzan, «geografi»ko lurralde batean erantsia.

Klase nagusia alemaneraz mintzo zan; eta lpar-aldeko industria berria Biena-ko eta Berlin-go burgesiak sortzen eta bultzatzen zuen.

Langileen bizimodua eraman-ezina izanik, industriako eskualdeetan nazio-arazoa bigarren maila batera pasa zan, eta aleman imigrazioa ugaria izan. Abertzaleen oinarria Txekoslovakia-ko nekazarien artera bildu zan. Abertzale intelektualik gehien gehienak XIX-garren mende osoan barrena, azkeneko urteetan izan ezik, baserriko seme izan ziran, eta gutxitan kaletar. Kaletarrak eta industria-langileak alemaneraz mintzo ziran, burgesak eta aiton-semeak bezelaxe; eta «unibertsalista» ziran. Fenomenu berbera Eslovakia-n: «antzinako eslovakiatar aiton-semeak guztiz magyar-tartuta zeuden» dio Prokes-ek.

1820 aldean, esate baterako, hau zan giroa Prokes berberak dienez: «Hirietan arlotekeri-sinaletzat hartua zan txekeraz egitea: gizartean txekeraz mintzatzea gaizki ikusia zan arrunt». Praga-n ez zegoen txekera entzuterik XIX-garren mendeko erdi-aldean, alemanera guztiz nagusitua baitzan. Kafka-k berak alemaneraz idatzi zuen dana askoz beranduago, XX-garren mendean!

XIX-gn. mendean Praga-ko Parlamentoa, eztabaidak eta izkribuak oro, alemaneraz egiten ziran. Tradizioari eutsi nahiz hasierako hitzaldi bakar bat txekeraz egiten zan sarraera gisa; baina deputaturik gehienek ez zuten deusik ulertzen, eta bigarren hitzalditik beretik azken-urteraino alemaneraz egiten zan dana. Bukatzerakoan, berriz ere, hitz batzuk esaten ziran txekeraz, eta kitto. Folklorean nagusi Praga-ko Parlamentoa bertan!

Abertzaleek bere hastapenetan, alemaneraz idazten zituzten bere liburuak (edo latinez!) eta eskoletan alemaneraz ikasiak baitziran, alemaneraz aixago mintzatu ohi ziran txekeraz baino, abertzaletasuna eta zapaltzailearen hizkuntza batera hedatuz. XIX-garren mendeko hasieran, Txekoslovakia-z kezkatzen ziran idazle guziak alemaneraz eta latinez egiten zuten txekeraren aldeko lana!

Palacky abertzaleak berak alemaneraz hasi zuen bere Kondaira nagusia... 1836-ean, lehenengo txekerazko Katadera Unibertsidadean sortuta 43 urtetara! Baina 1848-an, itxaropen apur bat izaten hasirik, txekeraz jarraitzea erabaki zuen; eta lehendabiziko alea txekeratu, eta urrengo guziak ere txekera hutsez argitara zituen. Palacky-ren inguruko abertzale-belaun berriak uste zuenez, «nazioaren ezagugarri nagusia txekera da; baina aiton-semeek, hain zuzen, arlotetzat eta gauditutzat ematen dute... Hortaz, txekotar pizkundera hizkuntzaren pizkundera da». (Histoire tchécoslovaque, Prokes, 277).

Giroaren neurri bat emateko, Safarik-en pasadizua azalduko dugu hitz gutxitan. «Eslabitar antzinaldia» liburua 1833-an bukatu zuelarik, argitaratzeko deliberoa hartu zuen. Bere buruz argitaratzerik ez zuen, Safarik bizi guzian sosik gabe ibili zan-eta. Argitaratzaile baten bila abiatu zan Praga-n, Brno-n, Bratislaba-n; eta ez zuen bat ere aurkitu.



Abonamenduz argitaratzea bururatu zitzaion orduan, eta txartel bat banatu zuen Otsailean abertzale edo erdi-abertzaleen artean. Maia-tzean, ordea, ez zuen oraindio erantzunik bat ere hartu; eta, etsita, asmoa uztea erabaki zuen, eta bere liburua, txekeraz idatzia, zoko batean ahaztutzea. Paneslabismoaren garaia zan orduekoa; eta errusitar Pogodine irakasleak Safarik laguntzea erabaki zuen. Errusiarara itzuli zuen liburua, eta Errusia-n argitaratu. Baina eslobakiatarren liburuaren 50 ale baizik ez ziran saldu Errusi osoan... Ez zan hau guzia abertzaleentzako oso bihotz altxagarri! Safarik hau, halere, ez zan ameslari bat. Entzun dezagun biltzar larri batean: «Joputasunetik askatasunera burrukaren bidez igaro diteke, eta ez bestela. Hortaz: izan gaitzen garaitzaile, eta aberri libro batean biziko gerez; ala ohorez hil gaitezen, eta hilobitik at garraituko digu loriak».

1840-ean Palacky-k eta Havlicek-ek bultzatua abertzale politika bat sortu zan, kultura-lanen gehigarri eta osatzaile. Halaz ere, hogeitaz, 1860 arte gutxi gora behera, intelektualen buruetan bor-bor irakiten ari zan ideia ez zan herrira zabaldu: «ero» batzuen kezka zirudien abertzaleetasunak desnaziotutako lurraldeetan eta giroetan, Praga-n oso beziki.

«Buditele» zeritzatenek («Esnatzaileak» euskeraz, abertzaletasunaren ereintza egin zutenek) gogoz egin zuten lana herrietan barrena. Bide guziak baliatu zituzten: txekerazko teatroa, atzerriar argitaratutako liburuxkak, folklorea («Sokols» erakundea batez ere, gero, hasieratik aberriaren ereile), kantuak: dana zitzaien on eta egoki. Palacky-k, Jungmann-ek eta Safarik-ek intelektualen mailan prestatu zuten nazioaren zimentarrria: Jungmann-ek Naziotar Hiztegia osatu zuen, Safarik-ek eta Palacky-k Txekoslovakia-ko Naziotar Kondaira, lehenbizi aldiz idatzia.

Hiru hauek, jakina, talde haundi baten aintzindari izan ziran. XIX-gn. mendeko erdi-aldean, Txekoslovakia-ko intelektual GUZIEK, denek batera, beren ahalegin guziak abertzaletasun-lanetan erabili zituzten, egiazko abertzale-belaun bat osatuz. Huntan danak dira ados: ez baita agian Europa guzian inoiz ikusi pizkunde indartsuagorik eta sakonagorik. «Nazioa antolatzeko eta eraikitzeko, eta bere kultura altxatzeko beharra, baita herri xeheak berak senditu zuen». Lehenengo lana hizkuntza eta kondaira zabaltzea izan zan, esan dugunez; urrengo urteetan hizkuntzaren eta kondairaren ezagueraren bidez abertzaletasuna politika-tzea eta azkartzea.

Egoki dator idatzitako hizkuntzari buruz gertatu zitzaiena aipatzea. Hizkera bakar bat finkatzea izan zan abertzaleen kezketako bat: hau gabe ezin ezertarako alkar har. 1840 aldean dialektuen arteko gorabeherarik ba zegoen Txekoslovakia-n barrena. Eta, horrez gainera, abertzale-

letasuna baserritarren artean zabaltzeko (baserritar gehiago zegoen arabera orduko Txekoslovakia-n gaurko Euskal Herria-n baino), hobe omen zan bertako dialektuan jendea irakurtzen eta eskolatzen zaletzea. Hau dala-ta, nahiz Praga-ko abertzaleek ahalegin handiak egin, 1845-ean Stur, Hodza eta Hurban eslovakiarrek, «eslovakiera» osotuaren oinarriak jarri zituzten, Praga-tik urrunduz. Budapest-ek begi onez ikusi zuen Biena-ren indar-galtze hau (Praga Biena-ren menpean zegoen batez ere), eta «separatismoa» txalotu zuen. Geroztik «eslovakiera» eta «txekera» bi hizkuntza dira, beren arteko liferentziak oso apurrak izanagatik ere.

Irakaskintzan jokatu zan pizkundearen etorkizuna. Lehenengo mailako eskolak txekeratu ziran aurrenik. Segidan, hizkuntza gaitu ala, bigarren mailako txekeratu ziran, 1866-etik batez ere; eta 1882-an, hamasei urte beranduago, orain Brusela-n bezelaxe (flamenkerazkoa batetik eta frantsesezkoa bestetik), Praga-ko Unibertsidadea bitan zatitu zan, bata alemaneraz jarraituko zuen bere irakaskintza, 1733-etik egiten zuen bezela; besteak berriz, berriak, txekera irakatsiko zuen aurrerakoan. Lobaina-n bezela: latinetik alemanera (frantsesera Lobaina-n); eta alemaneratik bitasunera, azkenean bertako hizkuntza hutsez egin arte. Helsinki-n fenomenu berbera ikusi da; eta gaurte ari da gertatzen hau Manila-n (tagaleraz), eta Saigon-en (vietnameraz). Txekera-ko Unibertsidade huntan maisuetatik bat Thomas Masaryk, hain zuzen, 1918-an Txekoslovakia-ko erresumaren sortzaile eta lehen presidentea.

Gauza nola zegoen ez dugu ahaztu behar. 1780-ean Joseph II errege egin zanean, eskolak ugaltu egin ziran bere inperio guzian; baina, noski, alemaneraz. Ez inolaz ere txekera. Bost urtetan 130 eskolatan txekera utzi eta alemanera sartu zan mintzabide. Irakaskintzako aldaketa hauek, dio Krofta istorilariak «oharrez, jakinaren gainean, eta txit berriaz etorri ziran nazioa guztiz germanitartzeko gogo nabarmen batekin batera». Inperioan hizkuntza bakar bat: hau zan helburua Biena-n. Hau dala-ta, eskualde osoak «guztiz desnaziotartuak» izan ziran.

Era berean Eslovakia-n. 1780 arte latina izan zan erresuma-hizkuntza; 1780-etik alemanera jarri zuten; eta gero, 1843-etik aurrera, magyarra, areago 1867-tik (Austria eta Hungria parean jarri ziranean). 1849-an halere, bigarren mailako ikasgu guzietan alemaneraz irakasten zan Eslovakia-n... Latina, alemana, magyarra... Eslovakieraren arrastorik ez!

Administrazioen XIX-gn. mendeko azken urteetaraino ez zan paretasuna bera ere lortu! 1848-ekeroztik paretasun hau eskatzen zuten abertzaleek, baina kasorik ez. Paretasuna lortzean halere, partidaren parte bat irabazita zegoen: alemanek ez zuten denbora galdu nahi txekera ikasten; eta XX-gn. mendeko hasierarako posturik gehienak txe-

keraz mintzo ziranek hartuak zituzten. Gaur Brusela-ko administrazioan flamendarrak nagusitzen ari diran bezelake.

Herrixkarik txikienetan, abertzale liburutegiak antolatuta zituzten abertzaleek, gehienetan herriaren beraren laguntzaz osatuak. Inportantzia handia izan zuen ere pizkundean, esan dugunez, txekerazko teatroak: Kliopera eta Tyl-en antzerkiek aberriaren sua piztu zuten toki guzietan, Txekoslovakia-ko kondaira eta problemak azalduz eta ulertaraziz.

Beste puntu bat, euskaldunontzako kontuan hartzekoa. Abertzale-tasunaren pizkundera 1809-tik 1848-erako tartean azkartu zala diote istorilariak; hau da: Metternich-en diktadura elizkoi eta polizia-zalearen pean! 39 urte «paketsu» haietan sendotu eta sustraitu zan txekoslovakitarren nazio-bizi-nahia!

Biena-Budapest-eko gobernuak ez zuten ahalik gutxiena baizik laguntzen. Adibide batzuk emango ditugu. 1831-ean txekerazko liburuak argitaratzeko sortu zan «Matices česká» dalakoak, abertzaleen diruaz ornitua zan. Nazio-Antzokia, Praga-n, 1868-an eraikitzen hasia, herriak emandako diru soilaz eraiki zan (bi aldiz, erre baitzan!): diru-biltzaleak, herriz herri nekatu gabe ibiltari, txekotar kasle gazteak izan ziran. Askoz beranduago oraindik 1890-ean, Hlavka ijeneruak ordaindu eta eraiki zuen Zientzia-Akademia. Prokes-en hitzez esateko: «aleman-kultura sendoki lagundua baldin bazan ere, Austriako gobernu guzien aldetik, txekotar kultura berekixa moldatu beharra zan, eta aberkideen eskuzabaltasunetik bizi zan hutsik». Erakustegiak literatura-alkartasunak, txekerazko egunkaria eta asteariak, dana, abertzaleen poltsikueta-tik lortutako diruaz mantentzen zan.

Gogorra izan zan burruka askotan. Hiri gutxi dago Europa-n Setio-legea Praga-k baino maizago sofritu duenik. Gauza bere Eslovakia-n: 1874-ean, esate baterako, bigarren irakaskintzako ikasgu guziak hetsarazi zituen Budapest-eko gobernuak; eta 1875-ean, eslovakieraz liburuak argitaratzeko baimena zuen erakunde bakarra (1862-an sortua) debekatua izan zan.

Elizak bi aldeetatik jokatu zuen. Abertzaleen aldetik apaiz asko izan zan, lehenengo garaiean batez ere. Apezpikuen aldetik, berriz, gobernuaren aginduak betearazteko gogoia agertu zan behin eta berriz: apezpikuak ez ziran lotsatu «jainkogabekeria eta naziokeria», biak batera, behin eta berriz kondenatzeko. Eslovakia-n, eta hau azken urteak arte, magyartartzearen predikari suharrak izan dira Budapest-etik bidalitako apezpikuak.

Austria-k ez zuen beti aurrez aurre eta gogorki burrukatu. Askotan, batez ere abertzaletasuna herriaz nagusitu ala, maltzurkeriaz eta azpi-keriaz jokatu zuen, egiazko helburua (txekotar abertzaletasuna zanpa-

tea) ideia zabalez eta «unibertsalez» estaliaz 1891-an, esate baterako, «Txekotar Gazte»en alderdi berria «Txekotar Zahar»en alderdiari arras nagusitu zitzaiolarik, abertzaletasuna ezkertarren eskuetara pasa zan; eta, hau gertatzean, herri osoa, langileria lehenengo aldiz, aberriaren eginkizunean sartu zan. Txekoslovakia-ko arazoa, ethnia arazo bihurtu zan, eta klase guzieren eginkizun: aleman inperialismoaren aztarnak ezabatzeke danak bat. Gobernua asaldatu egin zan, eta taktika aldatu zuen: «Zenbait aldiz txeko-aleman arazoa bigarren maila batera uztarazten saiatu zan Biena-ko gobernua; eta, huntarako, Parlamentoa ekonomiegin eginkizunetara lerra zedin saiatu zan, problema-mota horiek nabarmeneraziz... eta, garai batez, **klase-interesak nazio-arazoei nagusituko zitzaizkiela sinistu zuen**», dio Prokes-ek (Hist. Tchéc., 313). Aleman zapaketa, ordea, aberkide guzieren senditzen zuten ordurako; eta ez zuten amua irentsi.

Ez dugu artikulua huntan politika-arazoez hitzegiteko asmorik. Baina Sudeteen problemaz zerbait esan beharra dago.

1914-1918-ko gerla bukatzean, eta Austria-Hungria-ko «inperio saindu eta hilezkorra» desegin eta pikutara joan zanean, Txekoslovakia-ko Errepublikak sortu zan Masaryk eta Benes-en agindupean. «Sudete»etako korapiloa gelditua zan askatu gabe: hiru bat miloi lagunek alemaneraz hitzegiten zuten oraindik Bohemia-ko ipar aldean. Praga-ko gobernua erraztasunak eman zizkien halere, eta aberkidetzat hartu .

Baina handik 15 urtetara Hitler agintera irixtean, Sudeteetako alemandarrek antzinako «gaintasuna» berriz lortzeko aukera bat somatu zuten; eta 1938-1939-tik Hitler-en jokia egin zuten errotik. Bohemia-Morabia, hortara, Eslovakia-tik bereizia izan zan. 140.000 txekotarrek atzerirako bidea hartu zuten.

Gerla bukatzean Praga-ko gobernua, Benes berriz buru, ez zan txikikeritan ibili; eta hamar bat hilabetetan, ekonomiako eragozpenen gaitetik (eta troskazko industrian nabarmenak ziran), Alemani-ara erbesterratu zituen Sudeteetako **hiru miloi** sudetetar. Geroztik ez da aipatu ere egiten problema, eta ethniazko batasuna lortuta dago.

Xuxenki esan zuen igaz Kundera komunistak: «Kultura-balorerik gabe, nazioaren izatea bera segurtatzerik ez dago».

Hau betidanik ulertu dute txekotarrek.

IGARA

Gure hizkuntzaren arazoa luze-zabala da. Ta arazo hontan ez da txikiena kulturaren eta euskeraren ezkontzak sortzen duena. Kultura behar dugu, ez da dudarik. Baina euskerak eskeintzen ote digu, gaurkoz, itzul-molderik kultura hori, osorik, greganatzeko? Galde honi erantzun jator bat emateko, lan gaitza egin behar da. Esan genezake euskera kultura-bidean abiaturik dugula.

Azīgabeko hizkuntza bat eta kultura har-emanetan jartzeak sortzen dituan arazoak, ez dira gureak soilik. Vietnamdarrak prolema berarekin dabilta. Interesgarri diranez, vietnamdarren ahaleginak aditzera ematea pentsatu dugu.

## VIETNAMDARRAK ETA BEREN HIZKUNTZA

«Ameriketako Lehendakari Johnson eta bere laguntzaileak, Vietnamen eraso indargotzeko, gerra-kontseilu bat Honolulu (otsaila 1966) ospatzen ari ziran artean, Pham Van Dong-ek, gure lehen ministroak, irakaskintza, kultura, arte eta prentsako ordezkariekin bilera bat izan zuen. Bilkura honek batzaldi asko erre zituan vietnamdar hizkuntzaren garbitasuna nola babestu aztertzen».

Hitz hauek, berriki, Hanoin, frantzesez argitaratutako liburuxka (1), batetik hartuak, ez digute xinglekeria bat adierazi nahi, Pham Van Dong aingeru bezela azalduaz eta Johnson martetar bat bezela. Hitz hauek erakusten digutena da, gerratean ere, eta ez guda irabaztearren baka-rik, Vietnamdarrek ez diotela beren nazio-baliogoak sakontzeari utzi. Beste adibide askoetarik ere ondorio beretara etor gindezke, musikologian, arkeologian, eta zientzia-bilakuntzetan egin dutena ezagutzearekin.

Nord-Vietnamgo jakintsuek eta irakasleek atera-berri duten liburu honi ez zaizkio betiko politika-topiko ezagunak falta, noski. Baina inte-

---

(1) *Le Vietnamien et l'enseignement supérieur en vietnamien dans la R.D.V.N.* Atzerrietako hizkuntzetan argitalpena, Hanoi, 1968.

resgarri zaigu liburu hau, bere estudio nagusienetan, beren hizkuntza-azterketei esker egileek erakusten digutelako ba dagoela abertzaletasun ideki batez mintzatzerik: «vietnamtasunaren» gakoa eta honen aldakizunak, historia zear, asiatar zibilizazioekin —Txinoekin— hartuemanetan eta europear zibilizazioekin ere —frantzesekin—; bertako hizkuntzara itzulitako gaurko zientzia-konzetuen eta herri-kulturaren artean (eta baitipat kultura hau baserritarra da) gorde behar diran hartuemenen estudioak, kontuan eukiaz kultura horrek, ahal ditoken neurrian, pentsamendu berriaren moduak adierazi beharko dituela, eta, era berean, txoke gogorrik gabe bereganatu beharko modu hoiek.

Idazkera, asko errezten dala «quoc ngu»-n emanaz, alegia, vietnamdar hizkuntza erromar idazkerara itzuliaz, esaten digute autoreek. Arretaz diote hizkuntza dala nazioaren oinarria: oinarri «negatiboa» politikazko, kulturazko eta gainontzeko kolonizazioetatik gerizatzeke, eta oinarri «positiboa», tokiko baliogoa aberasten lagunduz. Orobat, hizkuntza hau pentsamenduaren tresna da, eta, honi dagokionez, liburuan presentaturiko zenbait oharkuntzek nazio-arteko ikasien biltzar nagusi batzuetan sakontzea mereziko lukete. Esaterako, bereziki, Europako pentsaera marxista, Sartaldean XIX-gn. mendean sortua, ez da pentsaera-estruktura propioaren jabe dan vietnamdar-pentsamoldean itzulia izan, baizik hartua, jaso. Pentsamolde hau atzerriaren (txinoak, mongolak, etc.) kontrako eta izadiaren (uholdeak, ur-langak) kontrako burrukan, bi mila urte gutxienik ibilitakoaren ondorioa da.

Ez goaz orain liburuko artikulu guzien laburpenik ematera. Baina adierazgarri dira estudio hoiek, ikusteko nolako sarrera ematen dioten vietnamdar-hizkuntzari funtsezko jakintzetan, nola eratzen dituzten sendagintza-terminu berriak, Hanoi-ko politeknika-eskolan nola eman ohi duten irakaskintza, tokiko hizkuntzan nola zientziatzko izen-saila antolatzan duten.

Hizkuntzalaritzari buruzko Europako eztabaidetarako vietnamdarren aurkikundeak dakarkiten inportantzia dakianari, berri hauek irakurtzeak esperantza bat sorrerazten dio, edo beste zenbait ikasketen argitalpena egingo dala, edo Hanoi-ko ta Europako intelektualak bilduko dirala. Nord-Vietnamdarrek opa dituzten jakintzarekiko trukapen hauen elkarrizketarako Paris arduratu dedila ez al da posible? Bestalde, soziologo frantzes batzuk R. D. V-ra joatea ez al dago pentsatzerik? Ikustera joango lirake, esate baterako, hizkuntzari ta kulturari buruzko alkar-bizitze hori nola gertatzen dan, nazio bat beraren barruan «viet» izanik gehientsuenak, eta gutxienak mendietakoak. Hanoi argitaratu dan liburu hau era hontarako elkarrizketarako dei bat da.»

(LE MONDE DES LIVRES 7470 VI)

# AGIRIAK

## KOLONBIAR HERRIAREN FRENTE BATURAKO PLATAFORMA

Kolonbiar guziei, herri-taldeeri, eragin batu baten eratzaileeri, sindikato, kooperatiba, mutualidade ta baserri-elkarteei, langileerakundeei, konformagaitz guziei, politika-partidu tradizionaletatik at dauden guziei: kolonbiar herriaren maila guziak, jomuga konkretu ta jakin batean batutzeko plataforma hau aurkezten dizuegu.

### Z E R G A I T I K

- 1.—Kolonbiar politikak, «minoriaren» ona ez, baizik eta «maioriaren» ona bila dezan beharrezko diren erabakiak, indarra dutenengandik sortu behar dute.
- 2.—Gaur egun indarra dutenek «minori» ekonomiko bat osatzen dute. Eta bere baitan ditu «minori» hunek, herriaren politikari dagokionez, erabaki funtsezkoenak.
- 3.—Minori hunek ez du sekula bere interesik ikuituko duen erabakirik sortuko.
- 4.—«Maioriaren» alde eta askatasun-bidetik, sozial eta ekonomi-aurre-rapen bat lantzearren beharrezko diren erabakiek nahi ta ez ikuitu behar dituzte «minoriaren» interesak.

- 5.—Argi dager, beraz: politiko-indarraren egitura nolnahi ere aldatu beharra dago, erabaki hoiak «maioriak» sortu ditzan.
- 6.—Gaurko partidu politiko ta egungo xixtimaren kontra dago «maioria», baina ez du bere baitan herriaren gidaritzza eskuratzeko botere ta indar egokirik.
- 7.—Eratzen den edozein politikak herriaren laguntza bilatu behar du, teknika-egitura bat behar du. Ta eratu ere, ekintza-printzipio batzuen gain eraturia behar du izan, ta ez «lider» baten gain, baldin kamarilla, demagogia ta personalismoa baztertu nahi badira.

## J O M U G A K

### I.—LUR-REFORMA

Lurraren jabetza lurra lanez lantzen duenarena izango da.

Izendatu, gobernuak izendatuko ditu inspektoreak, lan huntan diardutenei tituloak eman dezaizkieten Baina lurraren lantzea, «plan nazional» baten araura, kooperatiba ta elkarte-xixtimaz egingo da, kredito ta teknika-laguntzarekin.

Ez zaio inori lurra erosiko. Guzien onerako beharrezko den lurra, ordainik gabe ezjabetuko da.

Indijena-taldeek dituzten sailetan, heurak izango dira benetan eta egiz sail hoiere jabe. Indijena-talde hauen aurrerapena ta indartzea bulztatuko da.

### II.—URI-REFORMA

a.—Uri edo herrietan, etxe batean bizi direnak, etxe horren jabe izango dira. Etxe baten errentatik soilik bizi direnek (hala dela frogatzen badute), gorde dezateke etxe hori, nahiz ta bertan ez bizi.

b.—Etxe bat, gobernuaren iritziz, behar hainbat erabiltzen ez bada, multa botako zaio etxe horren jabeari. Ta multa-diru hori etxe-jasotze-planifikazioan erabiliko du gobernuak.

### III.—PLANIFIKATZEA

Inportazioa gutxitu, esportazioa gehitu ta herria industrialtzearren, derrigorrezko planifikatze bat eraturia da.



## AGIRIAK

Edozein inbersio, herriko inbersio-planifikazioaren menpe egongo da. Atzerriko txanponetan burutu behar diren arazoak Estaduak bakar-bakarrik egingo ditu.

### IV.—TRIBUTO-POLITIKA

Kolonbiar-fameli batek airoso bizitzeko behar duena (5.000 pesu 1965-ean) baino errenta haundiagoak jasotzen dituztenei, gero ta in-puesto haundiagoa kobratuko zaie. Muga huntatik gain sobratzen den errenta, «plan ofizialak» ezartzen dituen egin-beharretan erabiltzen ez bada, Estaduaren eskuetara joango da oso-osorik. Ez da instituziorik inpuestetatik libre geldituko. Lan saria ez da, neurri bateraino behintzat (esaterako, hileko 5.000 pesu 1965-ean), zergapetuko.

### V.—NAZIONALIZATZEAK

1.—Banku, Seguru-elkartek, Hospitalak, gaixo-etxeak, droga egin ta zabaltzeko erakundeak, Transporteak, Irrati ta Telebista, Estaduaren esku egongo dira denak.

2.—Estaduak emango dio kolonbiar orori edukazioa ta debalde eman ere. Bigarren mailako ikasketak amaitu arte gurasoen pentsakera errespetatuko da. Eta hortik aurrera ikaslearen idealogia.

Derrigorrezkoa izango da edukazioa bigarren mailako edo teknika-ixtudioak burutu arte. Hau betetzen ez duten gurasoak kastigatuak izango dira. Ordaintze-kontua inbersio-planifikatzearen gain gelditzen da.

3.—Lurpekoa Estaduarena izango da. Ta bere esku uzten da herriko ekonomiaren alde petroleoa lantzea.

Ez zaio inungo atzerritar elkarteri petroleorik emango, honoko baldintza hauek betetzeke:

- a.—Estaduaren parte hartzea 70%-koa izango da gutxienez.
- b.—Materialen borobiltzea, zabaltzea ta lantzea serbitzu publiku izango dira Estaduaren menpean.
- d.—Enpresa, tresna ta langailu oro debalde bihurtuko zaizkio Estaduari, 25 urtera beranduenez.
- e.—Kolonbiar langile ta arduradunen lan-saria atzerritarrenen neurrikoa izango da gutxienez.

## VI.—HERRIARTEKO HARTUEMANAK

Kolonbiak munduko beste herri guzietan izango ditu hartuemanak. Baita kultur ta komertzio-hartuemanak ere, beti berdintasun eta bi alderdien irabazian.

## VII.—SOZIAL-SEGURTASUNA ETA OSASUNA

Estaduak sozial-segurtasun-plan oso ta gero-ta gehiagoko bat eratu-ko du. Herriak debarde erabiliiko du osasunera ta medikuetara duen eskubidea. Estaduak begiratu behar ditu lan-gabe, ezin, zahartzaro ta heriotz-prolemak ere. Osasunari dagozkion profesio ta presuna oro Estaduaren langile izango dira. Eta bere kontura dauzkan famelien neurrian ordainduko zaio bakoitzari.

## VIII.—FAMELI-POLITIKA

Ume baztertuen gurasoak kastigatuak izanen dira. Legeak estaliko du emakume ta umeen babesa, kastigu egokien bidez.

## IX.—INDAR ARMATUAK

Indar armatuen presupuestoa bere egin-beharrari egokitua izango da, horregatik Kolonbiarren osasun eta edukazioa baztertu gabe, noski. Kolonbiar herri osoak zainduko du herri-jabetasuna. Emakumeek ere herri-serbitzu bat egin beharko dute hemezortzi urtez gero.

## X.—EMAKUMEAREN ESKUBIDEAK

Gizonarekin berdintasunean, emakumeak ere ekonomi, politika ta sozial-arazo guzietan hartuko du parte.

\* \* \*

Plataforma hau herri-mailek eztabaidatua, onartua ta osatua izan zen. Bogotako Unibersitario-urian F.U.N.-ek eskeini zion omenaldian aurkeztu zuen Kamilo Torresek lan hau 1965-eko maiatzaren 22-an.

## AGIRIAK

Aita Kamilo Torresek erreboluzionario bezala aurkeztu du bere burua, kolonbiar, soziologo, kristau ta apaiz denez erreboluzionario:

KOLONBIAR DENEZ: bere herriaren burrukatik at ezin ditekkelako geldi.

SOZIOLOGO DENEZ: gauzekiko zientzi-jakintzari esker, honoko konklusio huntara iritxi delako: ez dagoela, erreboluziorik gabe, soluzio tekniko ta benetakorik.

KRISTAU DENEZ Kristautasunaren ardatza lagunurkoarekiko maitasuna delako. Eta «maioriaren» ona lortzeko bidea erreboluzioa bakarrik delako.

APAIZ DENEZ: Erreboluzioak eskatzen duen «nork bere burua lagunurkoari entregatzea» elkar-maitasunaren lege bat delako. Eta, bide batez, apaiz-eginkizunaren derrigorrezko legea delako.

KAMILO TORRES RESTREPO

Euskerazlea: Iñaki Beristain

# Liburuak

## JESUKRISTO

*Aita Villasante O. F. M.*

Oinharrizko teologia edo teologia «fundamental» deritzanaren aurrean aurkitzen gera liburu hontan. Teologi-ikasketen hasieran aztertzen da gai hori, hau da: teologia oinharrizko saiatzan da. Teologia ere jakintza bat da eta jakintza guziek bezala oinharrizko dato batzuek zientifikuki ezarri eta erabaki behar ditu. Eta gure kasuan, dato hоек historiako egia batzuek dira.

Egia hoietan oinharrizten da kristau sinismena. Beraz benetan gauza garrantzitsua da egia hoien arazoa. Egia hoien mamia eta muina honako hau da berriz: Jesukristo bizi izandu zela orain bi mila urte. Eta Jesukristo gizon ez-ezik, Jainko ere bazela. Hori frogatzeko hor daude mirakuluak. Mirakuluak gertatu dira eta jakintzak ez dezake ez baieztu eta ez ukatu. Nolatan dugu egia hauen berri? Ebanjelioeri esker. Ebanjelioak egiazkoak ote dira? bai. Sinista ahal dezalekegu ebanjelariari? konfiantza osokoak dira. Ebanjelariak sinismen argiz dakuste Jesus. Baina sinismeneko Jesus hortatik atxemain hala dezakegu Jesus historikoa? bai noski. Erantzun guzi hauek frogatzea da Villasantek egin duen lana. Alde hortatik utsunerik ez duela esango nuke Villasanteren lanak.

Bainan alaz ere, ez nau gogo betetzen liburu honek. Planteamentua guziz apolojetikoa da. Azkeneko gizaldian kristautasunaren historiku oinharriaren aurka izan diran eraso guziak gogoan ditu, eta eraso hoien gezurra edo oinharririk eza frogatzen saiatzen da. Azken urteetako teoriak ere gogoan ditu, adibidez, Baulmannen teoria. Hortara datoz kritika textual aldetik damaizkigun esplikazio asko.

Aurkako teori hoiak okerra eta oinharririk-eza, beraz, ederki azaltzen digu Aita Villasantek. Bainan neretzat gauza bat gelditzen da erantzunik gabe. Ara berak zer dion: «Onako hau ere esan beharra dago: olako gogo idikiera gabe misterioari buruz, alper alperrikakoa izango da gure frogantza-lan hau. Jesus Jainkoaren Semea eta man-

dataria izan ditekela asieratik ukatzen eta arbuatzen baduzu, orduan, jakina, alper alperrik ariko gera». (273) Piztuerari buruz ari dela dio hori. Baina liburu guziari zabaldu ditekela derizkiot. Misterioarekiko gogo idiekiera bat behar du gizonak. Hor dago kakoa. Idiekiera hori ez badugu, ez dugu sinistuko. Eta piztuera sinisteste, Jesukristoren Jainko Seme izatea naiko zalantzan gelditzen da.

Gizonak idiekiera hori behar du, beraz. Baina, bai al du? Eta baldin badu, nun agertzen da? Gizonaren estrukturarari dagokion zerbait al da, ala ez? Nola froga deza-kegu idiekiera hori? Noraino garamazke idiekiera horrek?

Oinharriko teologi bat egiterakoan erantzun beharrekoak dira galdera guzi hauek nere iritzian. Gainontzean «Jesukristo» liburu guzia irakurtzeak ez gaitu ezertara eramango.

Ez dut uste Villasantek bere aurreko liburuan —Jainkoa, Kristu fedearen sustaiak— liburuan galdera hoieri erantzunik ematen dienik. Agian sinismentari buruz egiteko asmoa duen liburuan egingo du. Metodoloji arazo bat, besterik ez litzake orduan. Sinismentak Kristo historikoa du oinharri. Beraz, lehenbizi historiatasuna frogatu behar da. Baina historiako Kristo hori Jainkoaren Seme dela eta hilen artetik piztu zala onhartu ahal izateko, gizonak beharrezkoa du idiekiera hori; Jainkoak historia barruan zuzendu dezaiokean hitza Jainko-hitza edo errebelazio bezala onhartzera estrukturatua behar du gizonak. Horrela al da hori?

\* \* \*

Lerro hauen hasieran hiru konzepto azaldu zaizkigu: jakintza, historia eta egia. Aspaldidanik gizonak egia historiakoa dela uste izan du. Egia nola ulertu, ala azalduko zaizkigu historia eta jakintza. Eta Villasantek egiaeren ulermen estua duela derizkiot. Egia, metafisikuki, «adequatio mentis ad rem» definitzen zuten eskolastikoek. Beraz, egia atxemaiteko, gizonak bere aurre-iritzi eta interesak alde batera utzi behar ditu. Egia, izatea bera da. Izatearen aurrean berriz, gure jokabidea paper zuri baten antzera egotea litzake, izateak bertan bere osotasuna itsatsirik utzi dezan. Baina gauzak horrela ez-padira? Esan nahi dut: izatearen eta gizonaren arteko haruemanak estuagoak badira, bata bestearen izatea nolabait determinatu eta osatzen badute? Orduan lehen emandako definizioak ez digu gauza handirako serbitzen. Eta egia horrela ulertzeak zientifiku obsesio hortatik aterako ginduzke, agian. Ederki bereizten ditugu jakintza positiboak eta giza-jakintzak. Baina gero Jesukristo bizi izan zela eta Jainko Seme zela eta hilen artetik piztu zala, bi eta bi lau dirala frogatzen ariko baginake bezala, saiatzen gera frogatzen. (Ikus, adibidez, 248-garren horrialdian.

\* \* \*

Kritika textual aldetik ematen dizkigun explikazioak, gehienak autore guziak onhartzten dituzte. Pasarte jakin batzuek kritikatu ditezke, adibidez: Jesusen bataioa, Zesareako aitorra, Jesusek Apaiz nagusiarri ematen dion erantzuna, Mateoren «logion joánico» deritzaiona (Mt. 11,25-30) t. a. Autore batzuek ez dituzte texto hoiek edozein modutan erabiltzen, aopean eta ixilka bezala baizik. Eskerretuko zitzaiokean Aita Villa santeri bere iritzia bakarrik ez baina, horrelako puntu diskutituetan beste batzuen iritzia eman izan baligu, nahiz eta kontrakoa izan. Era berean Jesusen agertzeeri buruzko textoak.

\* \* \*

Bukatzeko. Beste norbaiten iritziak aztertzerakoan arrisku handi bat izaten dugu, hau da: iritzi hoiek erabatekoak balira bezala hartzea. Orduan kritika errazagoa izaten da. Baina autoreak berak bere iritzia erabat ez bainan, ahal duan neurrian matizatuak eskeintzen dizkigula ahazten dugu. Horregatik emen esan dudan guzia inpresio bat besterik ez da. (Kritika textualari buruz esandakoa inpresio baino zerbait gehiago ba-da). Eta inpresio bat danez, liburu guzia irakurtzeak sortutakoa. Benetan lan gaitza litzake gauzak eta iritziak horrialdez horrialde aztertzea eta azkenik estadistika modura egitea, liburu guziak izaten dute parrafo eta esaera bakoitzean esaten danetik gaindi, holako giro bat eta irakurlea askotan giro horrekin bakarrik gelditzen da. Beraz, giro horrek sortuarazitako inpresioak jarri ditut hemen gehienbat.

Zerbait gaizki esana badago, barka bezait Villasante jaunak; teologi alorrean euskeraz lan egiteko pentsatu ere ezin zitekean materiala eskeintzen bait-digu. (Beste teologi profesor asko badute nun ikasia). Horregatik eskerrik beroenak eman behar dizkiogu Aita Villasanteri.

Joseba Arregi

## OHARRAK

JAKIN zabaldu egin behar dugu, irakurle. JAKIN 34-earen sarreran profesionalismo bat behar zala euskal kulturari esaten genuen. Aldizkariak kultura horren arlo interesgarri diranez, hauentzako ere profesionalismo hori eskatzen dugu. Bide bat, hori lortzeko, harpidedunak ugaritzea da. Horregatik eskatzen dizugu JAKIN ezagutzera ematea eta zabalkuntza hortarako behar dituzun zenbakiak, atzeratuak ere, eska izkiguzu.

\* \* \*

JAKIN 27-28-ko, Rikardo Arregiren «Euskaltzaleen Jainkoa ill behar dugu» artikulua, eta, JAKIN 33-ko, Alejandro Oyarzabalaren «Euskal gazetidia tunel ilun batean» lanak zenbait eztabaida eta erantzun ekarri dituzte ondoren. Baina gaia aski argitua dagoalakoan, polemika hori, oraingoz, bere hortan uztea pentsatu dugu.